



ttipi-ttapa



Antton
ESPEლოსINek
bigarren liburua
→ 15

2010eko urtarrilaren 7a | XXX. urtea | 509. zenbakia



www.ttipi.net

Inauteriak Leitzan

Gehigarria erdiko orrietan

BERA → 11

Santa Barbarako III.
Igoera urtarrilaren 9an

ZUBIETA → 19

103 urte bete ditu
Joxepa Anttoni Ezkurrak

AMAIUR → 31

Ezezkoa eman diote
harrobiari eta kotoari

KIROLA → 36-37

2009ko Kirol Izendegia:
urteari errepasoa



FUNVERA, CONDESA, SAVERA, ARCELOR...

Enplegu erregulazio gehiagorik ez onartzeko eskatu dute Beran

ELA eta LAB sindikatuak, alderdi politikoak eta eskualdeko hainbat alkatek deitutako manifestazioan ehunka langile eta herritar bildu ziren Beran abenduaren 26an.

Funverako kasuan, bota nahi dituzten 55 langileren izen zerrenda aurkeztua dio zuzendaritzak enpresa batzordeari baina honek Erregulazio Espedientea ez onartzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari eta abenduaren 2an hasitako lanuztearekin segitzea erabaki du.

→ 10

ELKARRIZKETA → 3

Baztan-Bidasoako solasak liburuan bilduak

Baztan, Bertizarana, Sunbilla, Malerreka eta Bortzirietako mintzairak aztertuz *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* liburua argitaratu du Edu Zelaieta gasteiztarrak. Bere doktore-tesia da eta Euskarabideak eta Euskaltzaindiak argitaratu dute.



Edu Zelaieta, liburuaren aurkezpena egiten.



ERREPORTAJEA → 4-5

Kaxkabeltza Elkarteak sortu dute Leitzako merkatariek

38 bazkide daude oraingoz merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresen artean. Herriko merkataritza bultzatzea dute helburu eta, bidenabar, herriko kontsumitzaileen garrantziaz ohartaraztea.

KRISI-KONTRAKOGAUA

URTARRILAK
9
LARUNBATA

01:00 - 02:00 - Donenik eta 2x1
02:00etatik aintzineria 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03-30ak arte

RAIMUNDO AMADOR

URTARRILAK
16
LARUNBATA

00:30 - 1:40 - Aurreta, 16€ Takilan
Salmerita purtsiak: Eltonide; Antxonena, Txakato | Lesaka; Alaxpi | Irifia; El Infierno

KRISI-KONTRAKOGAUA

URTARRILAK
23
LARUNBATA

01:00 - 02:00 - Donenik eta 2x1
02:00etatik aintzineria 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03-30ak arte

KRISI-KONTRAKOGAUA

URTARRILAK
30
LARUNBATA

01:00 - 02:00 - Donenik eta 2x1
02:00etatik aintzineria 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03-30ak arte

ETALAISTER...

KENZAZPI

MARTXOAK
20
LARUNBATA

Lur



WWW.LURERIZKINTO.COM

Gasteiztarra da sortzez Edu Zelaieta, euskal filologia ikasitakoa eta EHUko Irakasle Eskolako Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren irakaslea. Baina atta eta attaren aldeko fami-

lia Bortzirietakoak izateak betidanik sortu izan dio inguru honetako hizkerarekiko interesa. Motibazio pertsonal horrengatik, Baztan, Bertizarana, Sunbilla, Malerreka eta Bortzirietako

mintzaira aztertuz liburua argitaratu du: *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Bere doktore-tesia da eta Euskarabideak eta Euskaltzaindiak argitaratu dute.

Edu ZELAIETA | Gasteizko irakasle eta idazlea

«Baztan-Bidasoako hizkerak nafarrak dira, kanpoko eraginak eduki arren»

G. PIKABEA |

Zer aurkituko dugu liburuan?

Liburua duela urte batzuk unibertsitatean egin nuen tesiaren bertsio osatua da. Baztan-Bidasoako hizkeren analisia aurkituko duzue. Bertako hizkerak nolakoak diren erakutsi eta bilketa lana baino gehiago, metodologia konparatibo batean sartzen naiz, ikusteko, adibidez, Baztango solasek zein diferentzia dituzten Bertizarana edo Malerrekakoekin, edo Bortzirietakoekin; Iparraldearekin zein lotura duten... Konparatuz eta kontrastatuz analisi hori egin daiteke, eta horren arabera, hizkera kokatu.

Zuk errana da: «Baztan-Bidasoa: bi izen, bi izan».

Azaldu...

Euskarak ematen digun esamoldea aprobetxatuz izen bakoitzak bere izena duela erran nahi dut. Izenak ez dira txantxetako kontuak, batez ere, toki izenak. Kontuan hartu behar dugu, Bidasoa edo Baztan errekararen inguruan belaunaldi aunitz pasatu direla, eta halere, izenak irauten egin duela. Izenek bertako errealitate bat erakusten dute, denboran irauten duena. Ez da kasualitatea baztandarrek euren nortasuna izatea, eta Mugairitik atera eta Baztango nortasun soziolinguistikoa bukatzen den tokian, ber-



TTIPI-TTAPA

Edu Zelaieta, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* liburuaren egilea.

tzelako hizkera bat hastea, bertzelako soziologia, eta han bertze izen bat hartzea ibaiak: Bidasoa. Ibai honek izen bikoitza du: Baztanen *Baztan*, eta hortik behera *Bidasoa*. Eta horrek dialektologikoki eta soziologikoki dagoen errealitate bikoitza adierazten du.

Batetik, Baztango solasa, eta bertetik Bidasoa aldekoa. Zein ezaugarri ditu bakoitzak?

Lehenik eta behin, erran, Bidasoaldeko eta Baztango hizkerak Nafarroakoak direla. Baztanek

BI IZEN, BI IZAN
«Ez da kasualitatea baztandarrek euren nortasuna izatea, eta Mugairitik atera eta Baztango nortasun soziolinguistikoa bukatzen den tokian bertzelako hizkera bat hastea, bertzelako soziologia bat, eta han bertze izen bat hartzea ibaiak: Bidasoa. Ibai honek izen bikoitza du»

ekialderago jotzen du, eta Iparraldera. Euskalkien historian, Bonapartek Baztan edo Baztango solasa Iparraldekoa edo Hegoaldekoa ote zen aipatzen zuen. Gaur egun, ordea, nire ikerketa eta ondorioen arabera, Baztanek Hegoaldera egin du bira. XXI. mendean, Bidasoaldeko eta Baztango hizkerak Nafarroakoak dira, nahiz eta nafarrak ez diren eraginak eta ezaugarri linguistikoak eduki. Baztanek Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Nafarroako eraginak di-

tu, eta Bidasoaldeak [Nafarroa] Gipuzkoa eta Lapurdikoak.

Bi multzo bereizi arren, bakoitzean ere badira aldeak, ezta?

Bi multzo nagusi dira Baztan eta Bidasoa. Baina Baztanen barrenean, hiru multzo egin ditut: hegoaldea, erdialdea (Elizondo) eta Baztangoia. Eta Oronoz-Mugairi ere hor dago. Linguistikoki aski herri interesgarria da, trantsizio handia dagoelako, Baztango eta Bidasoaldeko ezaugarriak baititu. Hitzun batzuek gehiago jotzen dute Baztan aldera eta bertzeek Bidasoaldera. Oronoz-Mugairitik bertze aldera, Bidasoalde dago eta hemen ere bi multzo tiki egin ditut: Malerreka-Bertizarana batean, eta Bortzerriak, bertzean. Eta tarteka Bortzerriekin eta tarteka Malerrekarekin. Ezaugarriak zehazteko zerrenda luzea egin behar genuke.

Ba al du etorkizunik Baztan-Bidasoako hizkerak?

Nik uste dut baietz. Ezin dajakin zer gertatuko den, baina printzipioz, indarra eta borondatea badago eta jendeak nahi duen birtarte, aitzinerat irauteko aukera aunitz ditu. Egia da, ondoan hizkuntza handi eta boteretsuak dituela, baina izanen du etorkizuna.

Merkataritza → ELKARTE BERRIA LEITZAN

Kaxkabeltza elkarteak sortu dute Leitzako 38 merkatarik, ostalari eta zerbitzu enpresek

Lanpostuak mantendu, formakuntza hobetu eta bezeroei konfidantzako zerbitzua eskaini nahi diete elkarlanean

Herriko merkataritza sustatu eta bultzatu nahi dute. Horixe dute helburu Leitzako merkatarik, ostalari eta zerbitzuek eta horrexegatik erabaki dute bildu eta elkarteak sortzea: Kaxkabeltza elkarteak. 2008an hasi

zituzten lehen hartuemanak, baina elkarte modura 2009 hondarrean hasi ziren lanean. Hainbat arlotan aritzen diren arren, kezka berdintsuak dituzte eta, hortaz, elkarrekin ekin diote ibilbide berriari.

G. PIKABEA | LEITZA

Zaila du txikiak haundien kontra lehia-tzea. Are zailagoa, haundiak gero eta gehiago direla, eta gero eta indartsuago datozela kontuan hartuz. Baina tiki askok, elkartuta, indar haundiagoa dute, eta horrela, errazagoa da haundiari aurre egitea. Bada horixe egin dute Leitzan: komertzio txikiak bat egin eta elkarteak sortu. Guztien artean, errazagoa izanzen delakoan

herriko merkataritza indartzea, eta bide batez, euren lanpostuak mantentzea. Kaxkabeltza eman diote izena oraingoz 38 bazkide dituen elkarte sortu berriari.

2008an hasi ziren Leitzako merkatarik mugitzen, Udalak eta Cederna Garalur Elkarrekin dendari, ostalari eta zerbitzu enpre-tako ordezkariak bilerara batera deitu, eta elkarteak sortzeko ideia eta laguntza eskaini zie-

tenean. Gustura hartu zuten proposamena, eta lanean hasi ziren: «2008ko Eguberrietan zozketa bat egin genuen», azaldu digute zuzendaritza batzordeko kideek. «Bai gure alde-tik, bai bezeroen alde-tik ere, harrera ona izan zuela ikusita elkarteak osatzera animatu ginen», gaineratu dute. Halere, estatutuak ez zituzten 2009ko azarora bitarte finkatu.

Ilusioz eta lanerako gogoz hasi dute ibilbi-



Leitzako merkatarikien elkarteko kide batzuk.

de berria. Elkartetik airtortu digutenez, «oso pozik eta animatuak gaude taldearen hasierarekin, uste baino partaidetza hobea izan du». Oraindik logotipo zehatzik ez badute ere, Eguberrietako kanpainan ontto kaxkabeltza baten irudia erabili dute. Hemendik aurrera finkatuko dute gainerrakoa. «Urte berriarekin batera plangintza egiteko asmoa dugu, formakuntza, datu bilketak, logotipoa, erakusleiho lehiaketa... Ideia asko ditugu, baina ez daukagu ezer lotua», adierazi du zuzendaritzak.

OGIBIDE DESBERDINA BAINA HELBURU BERDINA

Aski arlo diferentetan egiten dute lan Kaxkabeltza elkarteak. Batzuk ostalariak dira, besteak janari-dendetan ari dira, estetikan ari direnak ere badira, liburu-denda dutenak ere bai, baita autoen

tailerretan, eraikuntzan, aholkularitzan eta beste hainbat alorretan ari direnak ere. Ogibide desberdinak, beraz. Kezkek eta helburuak, ordea, berdinak: «lanpostuak mantendu, gure formakuntza hobetu... Eta gauza jakina da elkarlanean gauzak beti errazagoak direla», diote zuzendaritzako ordezkariak.

Leitzako merkatarik, ostalari eta zerbitzu enpresak txikiak dira oro har, «familiarrak», juntakideen hitzetan. Eta bezeroak Leitzan eta inguruko herrietatik etortzen zaizkie. Baina ohituraren eraginez edo, bezero asko joaten dira kanpora. Elkarteko arduradunen iritziz, Iruña, Donostia edo Tolosara joaten dira herriarrak. Baina, ez dute etsi nahi, «eta azken urteotan saltoki haundietara joateko dagoen joerak eta krisiak gauzak zailtzen badizkigu ere, elkarrekin eta denda, taberna eta tai-

38 BAZKIDE

Adur taberna	Etxe tresnak	M.Plaza eta E. Arrupea
Ainart ileapaindegia	Garbi drogeria	Marcia Z.Campos
Amaia arraindegia	Gaztetxo gozotegia	Musunzar ostalari
Ane Egizabal fisio-etxea	Guria tailerra	Ogi Berri okindegia
Aritzela dekorazio tailerra	Hernadorena burdindegia	Oihana Erbiti
Astiz liburu-denda	Imelda Larraz	Olaia bazarra
Arzallus harategia	Iruso jatetxea	Peritza taberna
Belarra belar-denda	Kapritxo arropa-denda	Perurena Harategia
Biok jantziak	Larraya	Sagasti jatetxea
Bitxilore lore-denda	Leitza garajea	Seikide asesoria
Bixigarri fruta-denda	Leitzako kiroldegia	Torra herrikoa
Edr Gunea	Maimur liburu-denda	Urkiola harategia
		Zortziko labetxea
		Zurlan zurgindegia



ler berrien irekierak ilusioz eta indarrez bete gaitu». Baikor begiratzten diote etorkizunari: «herrian bertan erostekak duen erosotasuna –autoa hartu beharrik ez– eta Leitza komertzio ugaritasuna dela eta, pixkanaka aldatzen joanen den itxaropena dugu».

ZORTZI KIDEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zuzendaritza batzordea ere osatua dute Kaxkabeltza elkartearen. Zortzi lagunek osatzen dute: Mikel Zabaleta lehendakaria da, Juan Esteban Ceballos lehendakariordea, Jose Mari Zubillaga diruzaina, Estitxu Astibia idazkaria eta Nerea Gonzalez, Estitxu Lertxundi, Juani Goikoetxea eta Ibon Lasarte bokalak. Urtero berrituko dute zuzendaritza.

Bazkideen kopuruan gora egin nahi du Kaxkabeltzak, eta beraz, elkartearen ez dauden mer-

LANERAKO GOGOZ
«Elkartek eta denda, taberna eta tailer berrien irekierak ilusioz eta indarrez bete gaitu»

Kaxkabeltza elkarte zuzendaritza batzordea

ELKARLANA
«Denen artean daukaguna mantendu eta aurrera begira negozio berriak irekitzeko bermea eman behar dugu»

Kaxkabeltza elkarte zuzendaritza batzordea

katarie gonbidapena luzatu diete: «animatu daitezela, zenbat eta gehiago izan gauzak errazago eta ilusio handiagoarekin egiten baitira».

Eta herritarrei zer esanen lieketen galduta, hauxe erantzun digute: «gure herria bizirik mantentzeko ezin-

LEITZAKO MERKATARIEN EGUBERRIETAKO KANPAINA

Eguberrietako zozketa aste honetan

2008ko Eguberrietan egin zuten euren lehenbiziko kanpaina Leitza-ko merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresek. Eta aldi honetan ere, kanpaina berdina abiatu dute, baina, sari gehiagorekin. Elkarteko kide diren komertzio eta enpresetan, on-tto kaxkabeltzaren irudia paratu dute eta bezeroek erosketak eginda-koan, euren izena eta telefono zenbakia kutxa batean sartu behar izan dute. Hain zuzen, aste honetan, ilbeltzaren 5ean, egitekoa zuten zozketa Leitza-ko Karrape irratan, eta bezero guztien artean sari hauek banatzekoak ziren:

• **Lehendabiziko saria:** 500 euroko erosketa balea.

• **Bigarren saria:** 400 euroko erosketa balea (aurreko aldian 300 eurokoa izan zen).

• **Hirugarren saria:** 300 euroko erosketa balea (aurreko aldian 200 eurokoa izan zen).

• **100 euroko sei sari** (aurten estreinakoz banatuko dira).

Bale horiekin, zozketako sari-dunek Kaxkabeltza elkarte-ko 38 bazkide diren merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresetan erosketak dohainik egiteko aukera izanen dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Joan den urteko Eguberrietako zozketako saridunak Maritxu Lazkano (500 euroko erosketa balearen irabazlea), Sagrario Razkin (300 euroko erosketa balearen irabazlea) eta Ana Zabaleta (200 euroko erosketa balearekin saritua) izan ziren. Aurtengoak TTIPI-TTAPAren hurrengo aleetan jakinaraziko ditugu.

bestekoak garena uste dugu. Elkartearen gaudenen artean, 100 lanpostu inguru daude. Bainagu bizirik mantentzeko bezeroak behar ditugu. Konfidantzako

zerbitzua eta hurbiltasuna baloratzeko esanenen genieke». Kaxkabeltzako zuzendari-tzaren irudiko, «denen artean daukaguna mantendu eta aurrera

begira negozio berriak irekitzeko bermea eman behar dugu, lanpostuak eta zerbitzuak gehitzeko. Ateak zabalik daukagu eta gogotsu hartuko ditugu».

**Nire txanda**

Joseba URROTZ

Euskañol

800 karakteretan gaia azaltzeko erran zidanean, «me quede como...» Nola egin? Ni p... idea! Iduritzen zaidak superzaila, hala ere saiatuko nauk. Vamos alla: Kanpokoak indar gehiago al du? Americanos, os saludamos con alegría... Kontua da euskaraz ari garenean gero eta gehigo erdarazko hitzak eta esaldiak sartzen ditugula, que no? Iduritzen zait erran nahi dugunari indarra, grazia, suspentsea eta abar emateko asmoz egiten dugula. Ez al zen txokantia «andate con luz» Gozategitarren kantuan? Eta bertsoari «ahi va la leche» erraten dutenean? Eta el colmo, besta euskaltzale batean, Bokaten zerrendan «Beikon-a» ikustia.... Que fuerte colega! Hizkuntza gauza bizia omen, eta nonbait, «le mola el mestizaje!» Niri etzait gustatzen, biño a «a mi plin!». Gelditu zait un poco cutre, ezta?

Kontua da euskaraz ari garenean gero eta gehiago erdarazko hitzak eta esaldiak sartzen ditugula, que no?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Donostiako hiru damatxo

Bertso txapelketa final gogoangarriari buruz irakurri ditudan kritika negatibo bakanetan bertsoetan politika sobera sartu zela aipatzen dute. Ez da kritika berria. 762 preso (politiko izaera ukatzen diete batzuk, baina aplikatzen zaizkien neurriak ikusiz, arruntak bederen ez dira) dituen herriko koblakariak gustura kantatuko zioten orain ere Orioko baleari edo Donostiako hiru damatxori.

Nabarmentzekoak

Joaquin BENGOTXEA
UGTko Idazkaria eskualdean

Abenduaren 10ean Elgorriagan egindako Baztan-Bidasoaldeko UGTren III. Kongresuan izendatu zuten eskualdeko UGTko idazkari nagusi Lesakan bizi den elizondarra.

Mari Cruz ARREGI
Zilarrezko Titareaz saritua

Santa Luzia eguna ospatu zuten Donezteben eta azken urteetako ohi-turari eutsiz Zilarrezko Titarea eman zioten jostun bati. Aurten, 67 urteko Mari Cruz Arregi izan da sariduna.

Joxepa Anttoni EZKURRA
103 urteko zubietarra

Abenduaren 13an bete zituen 103 urte Olase nekobordako emakumeak. 29 urterekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen. «Osauntsu bizitzea» omen da bere sekretua.

Atzera begira → 1999.01.14 / TTIPI-TTAPA 245. zbk



Orain hameka urte Loteriak dirutza utzi zuen Leitza

Amazabal auzoa ez ezik, Leitza osoa harrotuta zebilen 1998ko abenduaren 22az geroztik. Eta egia esan, ez zen gutxiagorako. Eguberrietako loterian, Urkiola harategian 5.040 milioi pezeta banatu ziren lagun eta bezeroen artean. Dezimo bakoitzeko 30 milioi (180.000 euro). Diru «garbia» gainera, jakina denez Loterian irabazitako diruagatik ez baita zergarik ordaindu beharrik izaten. Sari nagusia 21.856 zenbakiari egokitu zitzaion eta saritutako leitzarrek ederki ospatu zuten Olentzeroren oparia.



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Midegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Obxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Zapatero edo inposaketaren gobernuak

Laura IGANTZI

Oraindik gogoan daukat Zapatero jauna lehengo aldiz Espainako Lehendakariatzara aurkeztu zenean saldu zuen irudia: talantea. Egia erran Aznarren gobernuaren ondotik talantea hitza erabiltzeak ate aunitz ireki zizkiola Zapatero jaunari. Politikoki egoera hagitz nahasia zegoen, eta Madrilgo M11 sarraskiaren ondoren, eta PPren gezurrak agerian gelditzeak, Zapaterori Moncloako ateak ireki zizkion. Lehenengo lau urteetan bere benetako talantea ezkutatu zuen. Gure pake prozesua zela eta, Irakeko tropen etxeratzeta..., baina azkenean agertu da Zapateroren benetako aurpegia. Alde batetik, Nafarroan, Sanz jaunak sozialisten botoak Nafarroan behar zituela jakinik, Espainako aurrekontuetan UPNren botoak behar zituela eta presionatuz, UPNren haustura lortu zuen. Bertze aldetik, Euskal Erkidegoan, hauteskunde kanpainan ardi bezala aurkeztu zena, azkenean otso bihurtu zen, eta PPren botoez baliatu gizartearen nahiaren aurka Lehendakariatza lortu zuen. Geroztik nabariak dira euskal gizarteak lortutako hainbat «eskubide» zapaltzen ari direla. Baina inposaketa politikoak alde batera utzita, bada bertze inposaketa mota bat. Zapateroren gobernuak gurasoek gure seme-alabei eman nahi diegun moralan ere sartu dira. Argiak dira adibideak. Argi dago denok ez dugula ikuspuntu berdina moralitateaz, sexualitateaz... Zorionez hainbat estereotipo eta xenofobiak poliki-poliki desagertzen joan dira. Azkeneko urte hauetan zapalduta zeuden hainbat kolektibo burua altxatzen joan dira, eta gizarte gehiengo batek onartzea lortu dute. Baina orain hezkuntzaren bidez gure seme-alabei ikuspuntu bakar bat inposatu nahi diete. Ez nago ados. Frankismoaren garaian ikuspuntu bat inposatu nahi zuten, eta orain bestea? Ez, ezin dira pentsaera moldeak inposatu. Bertze adibide tamalgarria. Hamasei urteko neskatxak gurasoen baimenik gabe haurdunaldia eteten ahal dutela inposatu nahi digute. Non gelditzen da gurasoen papera? Ez al da gure eskubidea hezitzea, formatzea, ikuspuntu desberdinak eskura ematea? Ez al dira gure alabak gure erantzukizuna? Ezin dira gurasoen eskubideak horrela urratu. Ze ikasgai ateratzen dute horrela? Botika batera joan eta gaizki egindakoa moldatzen dela? Nire ustez hori guzti lehenengo etxetik eta gero planifikazioa zentroetatik bideratu behar da, behar den informazioa emanez, eta edozein arazoa dutelarik etxekoetan konfiatu behar dutela erranez. Nire alabaren etorkizuna nire ardura da eta bere hezkuntza ere bai.

«Non gelditzen da gurasoen papera? Ez al da gure eskubidea hezitzea, formatzea, ikuspegi ezberdinak eskura ematea?»

Libre izan nahi edo ez

Pello APEZETXEA

Jendearen dohainik handienetako bat askatasuna da, noski. Bizitzako aukeren artean norberak hautatzeko ahalmena izatea: ikasketa batzuk egin edo bertzeak, ezkontzako baiezkora eman edo ez, nolako familia sortu erabaki, huelgan parte hartu edo ez, botoa nori eman, adiskideak aukeratu, etabar. Horrek zera erran nahi du, ni zer eta nolakoa izan erabakitzen ahal dudala, neurri batean bederen; nire gogoaren arabera ibiltzen ahal naizela, nire buruaren jabe izan naitekeela. Hau dena, neurri batean, bai. Gure izaera, eta izaera honen osagaiak eta ahalmenak mugatuak baitira. Adimenaren argia, gauzak ulertzea, gorputzaren indar fisikoa, denak du muga, eta ezin dugu muga hori gainditu. Horren arabera, gure askatasuna ere ez da guk nahiko genukeen hainbertzekoa. Edota, bai? Behar bada, maiteago dugu askatasun mugatua. Gartzelan ez du inork egon nahi, ez, noski. Telefonorik, telebistarik eta autorik gabe bizitzea ez dugu onartzen, horiek gabe lotuago biziko baikinakeke, zenbait gauzatarako ahalmen ttikiagoarekin. Baina, bertze aldetik, ardura eta erantzukizun handirik ere ez dugu nahi. Lana? Nahiago bertze batek plantatutako lantegian ari, nire orduak sartu bertzerik eskatzen ez didana, nagusiaren meneko. Badira bizitza era autonomoan ere antolatzen dutenak, baina ez gehienak. Aginte kargua? Bertze batzuek har dezatela, nire pentsatze eta erabakitzearren beharrik gabe. Horrela, kezkarik gabe, lasaiago bizitzen ahal naiz, eta bertze horiek egindakoa kritikatzeko aukera beti izanen nuke. Askatasunak nortasuna handitzen du, baina nor izateak erabakiak hartzera behartzen gaitu. Eta horrek ez darama beti berekin nekea ere? Bertze aldetik, ordea, nor izateak, libre izateak sentiarazten digu jende kontzientzia, eta jende izatearen kontzientziak atsegin eta zoriona ere sortzen digu. Libre izan nahi? Nor izan nahi? Edota morroi izatea hobe?

«Askatasunak nortasuna handitzen du, baina nor izateak erabakiak hartzera behartzen gaitu. Eta horrek ez darama beti berekin nekea ere? Bertze aldetik, ordea, nor izateak, libre izateak sentiarazten digu jende kontzientzia, eta jende izatearen kontzientziak atsegin eta zoriona ere sortzen digu.»

Irakurleak mintzo

Nafarroako
2010eko
aurrekontu
orokorrak: udal
finantziazioari
kolpe berriaArantza, Bera, Etxalar eta
Leitzako alkateak

Politika neoliberaletan eta finantza-entitateek sortutako krisian murgilduta jarraitzen dugu bete-betean; eta ia ez egin zuten bezala, UPN-ren gobernuak PSN-ren laguntzarekin (elkarrekin sinatutako akordioak jasotzen duena betez) hiritarrei ordainarazi nahi dizkie egoeraren ondorioak.

Udal finantziazioari dagokionez, baliabideak are gehiago murriztu nahi dituzte, eta horrela, udaletxeek politika soziala garatzeko dituzten aukerak erabat baldintzatu. Politika sozial hori ezinbestekoa da krisi egoerari zein haren ondorioei aurre egiteko. Betiko moduan, sistemaren krisia herriak eta langile klaseak ordain dezan nahi dute, eta bien bitartean, arduradunak guztion diruaz dira babestuak.

Berriro ere, udal finantziazioa gutxietsitako alorra bihurtu da krisi-aurrekontu hauetan. Esaterako; Landa Garapenean soilik, toki entitateei zuzendutako 12.340.514 eurotan gutxitzen da 2009koa erekin alderatuta. Hezkuntzan; Udalekin egindako hitzarmene-

tan, 0-3 urteko eskolatzeari dagozkionak, 6.222.806 euro kentzen dira (% 40 inguru), Gai sozialak familia gaiak, gaztedia eta kirolak: Toki entitateetako kirol instalazioetarako 3,75 milioi euro gutxiago egongo dira, eta hirugarren adinekoentzako 2,67 milioi euro gutxiago. Musika-eskolari (% 50 baino gehiagoko murrizketa). Euskarari, murrizketa orokorra eta masiboaren barruan, Udal zerbitzuei 350.000 eurotik 150.000ra jeisten da.

Hala eta guztiz ere, diru-sarreretan %1,98ko igoera proposatzen da, ia 85 milioi euro gehiago estatutuko diru-kutxetarako, programa eta azpiegitura antisozialetara bideratzen jarraituko direnak; AHT, goi-tentsio-ko lineak, eraikin faronikoak, etab. "Nafarroa 2012" planeko inbertsioak, lehenetasun oso eztabaidagarria dutenak, udaletxeentzako inbertsioetat hartzen dira; gainera, Gobernuak nahi bezala banatzen ditu laguntzok, ia guztiak Udaletxe "adiskideei" emanaz eta beste batzuk zigortuz. Estatuari zuzenean ordaintzen zaion kupoa ere %35,55ean igoko da (9,7 milioi euro), 541.700.800 eurora iristearaino.

Laburbilduz, Nafarroako toki entitateak ekonomikoki itoak daukela esan beharra dago (mendiko krisia eta erainkuntzana), eta Nafar Gobernuak estukilatuak. Orain inoiz baino

beharrezkoagoak ditugu autonomia eta krisiari aurre egin ahal izateko baliabideak, errealitateari erantzun dion politika sozial batetik abiatuta.

Horrela, ezker abertzaleak lehentasunez kotzat jotzen du egoera hau errotik aldatzeko aldarriarekin jarraitzea, ia proposatu genuen termino berberetan. Terminu horiek "Nafarroa Ezkerretik" txostenean defendatzen diren neurrien dekalogoaren jasotzen dira.

· Udal finantziazioaren eredu aldatzea: oraingo ereduak proiektuak (Nafar Gobernuaren borondatearen arabera, beti ere) diruz laguntzea du oinarri. Horren ordez, udaletxeek gaitasun ekonomiko handiagoa eta euren politika eta inbertsioen gainera erabakitze ahalmen handiagoa emango dien eredu nahitaezkoa da.

· Udal finantziazio marko orokor bat abiatzea, egonkorra eta behar bestekoa; toki entitateek Nafar Gobernuko zergetan parte hartzea bideratuz. Gutxienez jasotako guztiaren % 25 bideratu beharko litzateke toki entitateetara, ondoren herrietako udaletara banatzen.

· Nafar Gobernuaren eskuduntzak deszentralizatzea, Udalen mesedetan (kontu-saile ekonomikoetan eta finantziazioan). Batez ere babes eta zerbitzu sozialei eskaini beharko litzateke arreta, egun Nafar Gobernuak era-

bat ahaztuak dituen horietara, hain zuzen ere.

Gozatu, baina ez inori kalterik egin!

Anttoniko APEZETXEA
(Goizueta)

Ze egun pozgarria izan zen azaroaren 28a Goizuetan. Herrikoak eta kanpokoak denak bilduta elkarrekin bat eginik, ehunka gauza ekarriaz plazara. Saldu eta erosi. Zenbat aurpegi goxo, elkar aspaldi ikusi gabeak. Eguraldi ona. Eta jubilatuen elkarrekin pintxo txistorra gonbidatzen denari, sargardoarekin. Fernando Goia, Udaletxearen ize-nean, dena ongi organizatzen, mutil gaztea baina pizkorra. Denak, denak, saiatu ziren herriari merezi zuena ematen. Ondoren bazkaria pilota plazan, dena bete. Soinua eta umore ona. Hauxen da oso pozgarria. Baina mina eman zidaten gauza batzuk: indarkeria erabiltzea. Loreak eta lorapoteak airean botaz, etxe aurreko oso aulki politak txikituz, kontadore lekuak hondatuaz: okerkeri hau ez da egun honetan bakarrik izan. Beste jai berxietan ere bai, horrelatsuko gauzak gertatzen dira. Indarkeri hori erabiltzen dutenari esan nahi diet: «Gozatu, baina ez inori kalterik egin».

Familia
zoragarri bat
izatearen altxorraM^a Isabel OTEIZA
(Beintza-Labaien)

Bitzita honetan familia zoragarri bat izatea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Oraintxe esanen dizuet zergatik: Abenduaren 11n nire senarra Josetxo Gragirena Mutuberria hil egin zen. Oso une latzak bizitu ditugu, baina ez ora in bakarrik. Josetxok 20 urte egin zituen gaixorik, eta urte horietan erakutsi dit familiak elkartasuna eta maitasuna zer den. Nire eta nire seme-alaben ondoan egondu dira beti, ez digute momentu batean ere bakarrik utzi.

Josetxoren aldeko koinatu-konatei, nire gurasoiei, nire aldeko senide eta koinatu-koinatei, iloba guzietan, lehengusu-lengusina guzietan... familia guztiari eskerrak eman nahi dizkiet nire eta nire seme-alaben izenean. Benetan esaten dut inoiz ez zaigula ahaztuko gugatik egin duzuen guztia 20 urte hauetan.

Bitzita honetan familia zoragarri bat izatea altxor handi bat da, eta denek horrela demostratu diguzue. Mila esker denei bihotz-bihotzetik.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Bota bertsoa
Maialen BELARRA (Doneztebe)

Urte berriari

Gaztetxoena egun hauetan dabilta opari eske ilusioak aunitz dituzte irribarreak hainbeste milaka turroi, hamaika pinu ta zaku bete pakete urte berri on denei eta txintxo portatu zaitezte!

Baina bestalde, falta ditugu hainbat mutil ta neskato faltan botatzen ditugu, noski hau da hain begi bistako baina animo, altxa burua nahiz ez egon hain galako Urte berriak itxaropenak indartzen dituelako!

11 galdera labur

Leitzan bizi den iturendarra ala Iturenen sortutako leitzarra?

Iturenen sortutako leitzarra.
Zer du Leitzak Iturenek ez duena?

Biztanle gehiago, eta hemen lana zegoelako lanera etorri eta hemen gelditu ginen.

Eta alderantziz?

Herri ttikia izateko bestak eta inauteriak oso ongi egiten direla.

Leitzako inauteriak ala Iturengoak nahiago?

Iturengoak.

Iturenen eta Leitzan inauteriak aldi berean direnean, zeinetara ez duzu hutsik egiten?

Iturenen ez du behin ere hutsik egiten.

Zergatik ote dira hain ospetsuak joaldunak?

Joarengatik izan da. Aunitzetan joan izan gara kanpora eta oraindik ere ateratzen dira.

Zer da zuretzat joaldun izatea?

Gauza haundia izan da beti, ttiki-ttikitatik.

Emakumezkoa bazina joalduna izan al zinake?

Ez dakit... Igual bai!

Gustura ikusiko al zenituzke seme-alabak joareekin?

Bai, baina ez dute ikasi. Semea, zaharrena, gaztea zela joaten zen Iturenera, eta hasi zen, baina gerora utzi egin zuen.

Joaldunen Eguna, inauteriak ala Errege Bezperako besta. Zein nahiago?

Denak besta onak dira, baina inauteriak luzeagoak dira eta elkartasun haundia

goa izaten da. Zahar, gazte, neska, mutil, herri guztia biltzen da inauterietan.

Ituren, Aurtitz eta Zubietakoak zanpantzarrak direla erraten dutenei, zer erantzunen zenieke?

Hori ez dela horrela. Ez dakigu nondik atera den hori, kanpotik etorritakoa izan da, baina gu joaldunak gara.



Joxe Martin BERAU → Leitzan bizi den Iturengo joalduna

J. RAMOS
zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut.
Sakelekoaz: 637 836 073 · LESAKA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

KIRILLI
Alaba 1 · BERA
Tfn: 948 631 410

HEROIKO ETXEN
EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Moztan eta Wintroppe
SARA

udana salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
Sistema de Gestión de Calidad Certificada
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxa: 948 631 560

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

BORTZIRIAK

LANA → KALERATZE ETA EREEN ERAGINPEAN

Zalain eta Funvera lantegien egoera gero eta kezkarriagoa da

Abenduaren 26an manifestazio jendetsua egin zen Beran

TTIPI-TTAPA | BERA

«Etorkizun duinaren alde, Baztan Bidasoa bizirik» lelopean manifestazioa deitu zuten eskualdeko LAB eta ELA sindikatuek abenduaren 26an. Inguruko hainbat alkate eta hautetsiren babesa ere jaso zuen eta ehunka lagunek egin zu-

ten Zalaingo lantegiaren eta Berako Herriko Etxearen arteko bidea. Hain zuzen, Condesa taldeko Zalain Transformados da egoera itogarri- an dagoen lantegietako bat, heldu den urterako ere EREa iragarri baitute zuzendaritzatik. Ibilbidea Alkaiagako industrialdetik pasatu zen eta Berara sartu zen Estazioko zubitik, Funveratik hurbil. Lantegi honetako langileen kezka oraindik handiagoa da. Abenduaren 23an Industria, Berrikuntza eta Lan Depar-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Zalaingo lantegia eta Berako Herriko Etxea lotu zituen manifestazioan ehunka lagunek hartu zuen parte, «Etorkizun duinaren alde, Baztan-Bidasoa bizirik» lelopean.

tamentuan bildu zirenezuzendaritzarekin eta langileen ustez, «bilerak ez zuen deustarako balio izan» eta egun horretan bukatzen zen kontsultapea inolako akordiorik lortu gabe itxi zen. Langileek salatu dutenez, «zuzendaritzak ez du batera aldatu hasierako proposamena eta 55 kaleratzei tinko eutsi die eta izen-abizenak ere jarri dizkie». Langileen ba-

tzordetik, 55 urtetik goitikoentzako 23 aurrejubilazio proposatu zituzten, baina enpresak ezezkia eman du, ez di- tuen 3 milioi gostako li- tzatekeelako. Hau gezu- rra da abenduaren 2az geroztik greban dauden langileen erranetan, «azken bortz urteetan 11 milioi euroko irabaziak izan baititu enpresak, 5 milioi eurotik goitiko la- guntzak eta 2 milioi eu-

rotik goitiko dirulagun- tzak eman dizkio Nafarroako Gobernuak, diru publikoarekin».

Beran bildutako lan- gileek ERE gehiagorik ez onartzeko eskatu zioten Nafarroako Gobernuari, izan ere joan den urtean aurkeztutako %99a onartu baitzituen. Lan- gileak ez direla zenbaki hutsak, pertsonak baizik ere gogoratu behar izan zuten.

KULTURA → BORTZIRIETAKO IPUIN LEHIAKETA

Haur eta gazteen ipuin lehiaketako sariak banatu dira

Arantzara, Berara eta Lesakara joan dira sariak

TTIPI-TTAPA | BERA

Munduko herriak gai- arekin antolatutako Bortz- irietako Haur eta Gazte- en ipuin lehiaketak eman du oraingoz berea. Aben- duaren 16an banatu zi- ren sariak Berako Herri Liburutegian, eta aur- kezututako lanen artean, epai-mahaiak sariak

Arantza, Bera eta Lesa- kara bideratu zituen. Adi- naren arabera, hiru mai- latan sailkatu zen lehia- keta eta liburu sorta eta eskolako materiala jaso zituzten irabazleek.

MAILA BAKOITZEAN HIRU SARI

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleei zuzen- datutako A Mailan, Be- rako Jesusen Bihotza ikastetxeko Jaione Ber- tizen *Egun ahaztezina* ipuinak, Berako Rikardo



ARGAZKIA: BEATRIZ AUZMENDI

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 16an egin zuten Berako Herri Liburutegian.

Baroja ikastetxeko Olaia Otxotekoren *Bidaia lu- zeak* eta Berako Labia- ga Ikastolako Xiker Li- zardiren *Indiako behi- baten istorioa* ipuinak es- kuratu zituzten sariak.

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek B Mai- lan parte hartu zuten eta Berako Labiaga Ikasto-

lako Asier Osesen *Pobre- ziatik aberatasunera flash batean?* lanak, Arantzara Eskolako Oihana Etxeberriaren *Juan eta Clodinen istorioa* ipuinak eta Labiaga Ikastolako Uxue Antzizarren *Ekua- dortarren istorioa* lanak eskuratu zituzten sariak.

C Mailan, DBHko le- hen eta bigarren maila-

koei zuzendatutako mai- lan, Toki Ona Institutuko Johana Ramirez lesaka- rraren *Bidegabekeriak munduan* lanarentzat izan zen sarietako bat, eta bertzeak Arantzako Eskolako Gurutzeta Ipa- ragireraren *Eskaintza be- rezia* eta Sara Almandon- zen *Nire familiarren his- toria* ipuinentzat.

MENDI LASTERKETA → LORO, ZUBI ETA SARALEGIREN OMENEZ

Larunbat honetan egingen da Santa Barbarako Igoeraren III. edizioa

Berrikuntza gisa, eskalada tailerra izanen da goizean

TTIPI-TTAPA

Aurten hirugarren aldiz, Santa Barbarako Igoera egingen da larunbat honetan, urtarrilak 9. Duela hiru urte hasi ziren Manttale Mendi Lasterketa Taldea, Agerra Mendi Taldea eta Gure Txokoa elkarteak igoera hau antolatzen, Taillon mendian hil ziren Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiren omenez. Aldi honetan ere, egun osoko egitaraua antolatu dute:

- 10:00-12:00: eskalada tailerra haur eta helduentzat kiroldegian.
- 14:30ean: Santa Barbarara ibilaldi gidatua. Izena irteeran eman behar da eta ibilaldia, 6,5 kilometrokoa, kiroldegitik abiatuko da.
- 14:45ean 12 urte arteko haurtzako lasterketak.
- 15:30ean binakako kro-noigoera 16-65 urte artekoentzat. 13-16 urte bitartekoek heldu baten laguntzarekin joan behar dute.
- 17:30ean mendiko dokumental emanaldia.
- 18:00etan berendua eta zozketak .

Droga eta sexualitateari buruzko gida

Drogen eta sexualitateen inguruko informazioa biltzen duen gida atera du Askagintzak. 28 orrialdeko gida da, eta gai horien inguruan dauden web orrialde interesgarriak ageri dira. Herriko hainbat gunetan egonen da eskura. Alde batetik, Toki Ona Institutuko eta Labiaga Ikastolako DBHko ikasleek zuzenean jasoko dute eskura, Askagintzakoakue-ren ikastetxeetara joanen baitira. Horrez gain, informazio puntuan, Liburutegian eta Kultur Etxean ere izanen da.

INFORMAZIO PUNTUA HILABETAN BI ALDIZ

Gainerakoan, Udalak eta Askagintzak kudeatutako informazio puntuak berdin segitzen du lanean: hilabeteko bigarren eta laugarren ortzi-eralean 17:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. Oraingoz Musika Eskolan dute egoitza, baina Belandetako obrak bukatzean harat lekualdatuko dira.

Realzaleen peña: Genaro Taldea

Eskualdeko realzaleak elkartu eta Genaro Taldea realzaleen peña pa-

ratu dute martxan. Genaro Zelaieta jokalaria haundia izandakoa eta haren seme Unairen omenez paratu diote izena taldeari, biak ere talde txuri-urdinean aritu baitziren. Taldearen helburuetako bat Baztan-Bidasoako realzale guztiak biltzea eta elkarrekin

hainbat ekintza egitea da. Taldeko karguak ere banatu dituzte: Jon Mikel Matxiarena presidentea izanen da, Iñaki Goia presidenteordea, Maria Barredo idazkaria, Jon Zelaieta diruzaina eta Jokin Iturria, Ines Matxiarena, Ana Lazkanotegi eta Julen Zelaieta.

Taldearen inaugurazio ofiziala urtarrilean egitekoa dute, eta Genaro eta Unairen familiari omenez ttiki bat egiteaz gain, Realeko hainbat jokalaria eta izandakoak gonbidatuko dituzte.

50 bat bazkide dira oraingoz eta hamabortzean behin biltzen dira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Sarraikiako meategien inguruko kontuak Nahia Senperren eskutik

Sarraikiako meategiak. Burdinaren bideak Bidasoan zehar izeneko erakusketak itxi ditu ateak, eta norbaitek ikusterik izan ez badu, pena, interesgarria izan baita. Abenduaren 11n egin zen inaugurazioa eta bisita gidatua, Nahia Senper herriko arkeologoaren eskutik. Hain zuzen, erakusketa egin duen Larrate Zerbitzu Kulturaleko kide da Nahia Senper eta Sarraia inguruan egindako indusketen berri eman zuen. Erakusketa Udalak antolatu zuen, Cederna-Garalur erakundearen laguntzarekin. Udala izan da, halaber, Sarraikiako meategietako indusketa arkeologikoak bultzatu dituena eta han egindako lana, Sarraikiako meategien azalpen historikoa eta Beran izan zen Montoiako portuaren eta trenaren inguruan erakusketa izan zen erakusketan ikusi ahal izan zena, guztia burdinaren inguruan. Senper bere unibertsitateko tesia oinarri hartuta aritu da indusketa lan hauek egiten. Oiaso-Pompaelo erromatar bidearen aztarnak aurkitu nahi litzuzke eta bere ustez, bide hori gure ingurutik pasako litzateke. Lan horren baitan, Sarraikiako meategiak aztertu ditu. Indusketa arkeologikoan meategietan erabiltzen zen bagonetaren aztarnak topatu ditu, baina bertze gauza handirik ez. Halere, meateagi hauen inguruko dokumentazioa Erdi Arotik badela adierazi zuen. Sarraikiako meategien inguruan ez ezik, meategi horretako burdin eta bertze hainbat produktu Hondarribiara eramateko eta Hondarribiatik Berara arrain freskoa eta gaztua ekartzeko erabiltzen zen Montoiako portuaz ere aritu zen, baita berriagoa zen trenbideaz ere. Portuaren inguruan lan egiteko borondatea azaldu zuen Senperrek, beti ere Udalaren laguntza lortzen badu. Josu Irtzoki alkateak borondatea bai, baina dirua falta dela aipatu zuen. Ikusi behar!



LESAKA

UDALA → GARAPEN BATZORDEA KENDU DUTE

Herriko seinalizazio berriarekin urtean 45.000 kilometro gehiago egin behar direla dio alkateak

Burdinaren Etxearen egoera berriaz planteatu beharko dela ere erran du

Aitor AROTZENA | LESAKA

Udaleko Garapen Batzordea desagertarazteko arrazoiak galde-tu zituen Oninek eta horri erantzunez emandakoen artean, "lortutako emaitzak ez direla erakutsi nahi digutena bezain bikainak" erran zuen alkateak. Horren adibidez, Agiñako lanetan udalak Nafarroako Gobernuaren espedientea jaso duela adierazi zuen Juan Fermin Mitxelena, "21 pago eta 14 urki baimenik gabe moztu zirelako" eta "inauguratu zenetik inork erabili ez duen aparkaleku bat eraiki zen". Burdinaren Etxearen gastuak aipatuta "lokal horren egoera berri ere planteatu beharko dugula" ere erran zuen. Baina Mugikortasun Mahaiak egindako lanari alkateak egindako kritikak izan ziren zorrotzenak. Bere erranetan, aparkatzeko arazoek berdin segitzen dute eta seinalizazio berriarekin, "bi gauza lortu dira, jende ge-

hiena debekatutako noranzkoan ibiltzen da horrek dakarren arriskuarekin eta urtean, Lesakako karraketan barna 45.000 kilometro gehiago egin beharko dira toki berera joateko, auto berekin". Batez ere Kattu aldetik plaza edo Bittiria aldera eta lehengo hiltegiko aparkalekutik Onin errekaaren eskuinaldeko edozein tokitara joateko ibilgailuek egin beharreko bidea eta ibilgailu kopurua kontuan hartuz egindako ikerketa hartu zuen oinarri alkateak kopurua emateko. "Aldaketa honekin zioen alkateak ez zaio inori mesede egiten, erregai gehiago gastatzea eta soinu eta kutsadura handiagoa sortzea ekartzen du eta istripuak izateko arrisku handiagoa". Garapen Batzordeak kudeatzen zituen bertze hainbat gai bertze batzordetan landuko direla aipatu zuen batzordearen alkateak eta kirol eta kultur batzordeak berri ere batean biltzea defendatu zuen. Oninen ustez batek bertzearen ez dute zerikusirik, baina PNVren erranetan "afizionatuen kirola, berez, kultura da eta hori beregiz, kirolari nolabaiteko profesionaltasun-kutsua ematen zaio".



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Olentzero eta jaiotza lehiaketa bikainak izan ziren

Garairako eguraldi epela lagun zutela 23 taldek parte hartu zuten Olentzero eta jaiotza lehiaketan. Horietatik 17 olentzero lehiaketan atera ziren, 9 hameka urtez beheitiko kategorian, 5 hameka eta hamasei urte artekoan eta 3 helduetan. Azken hauen artean, argazkian ageri den taldeak irabazi zuen lehen saria, baita Olentzero onenari emandako Esparza saria eta Komertzianteen Elkarteak hobekien kantatzen zuenari emandakoa ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

24 bertsolari aritu ziren Bertso Eskolaren XI. lehiaketan

Giro ederrean joan zen Bortziritako bertso eskolak hamekagarren aldiz antolatutako taldekako bertso lehiaketa. 24 bertsolari aritu ziren zortzi hiru kotetan banatuak. Bertsolariak ez ezik, trikitilariak, epaileak, gai-jartzaileak eta laguntzaileak ere bertso eskolatik ateratakoak ziren. Linddurrenbordako finalean, Aro(t)zenatarrak taldeak (Manolo, Estitxu eta Aitor) irabazi zion Altzuriterrak taldeari (Xabier Terreros, Iban Garro eta Josu Sanjurjo). Bertso onenari Berako Espidobaita elkarteak emandako Kotto Saria, Maddiane Txoperenak eskuratu zuen.



EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Giro ederrean eta partehartze handiarekin joan dira Eguberriak

Olentzeroren kalejiran inoiz baino herritar gehiagok parte hartu zuen

Joseba eta Nerea

Arrakasta handiz joan dira Eguberrietako ekitaldiak. Olentzeroren etorrerak inoiz baino herritar gehiago bildu zuen abenduaren 24an. Arratsaldeko kalejiran dozenaka haur, gazte eta guraso elkartu ziren Eguberrietako kantak kantatuz. Ondotik, meza izan zen eta segidan luntxa Elutsan txistulari, trikitilari eta haurren-tzat.

Ela-ela eskea

Kantari eman zioten akabila herriko haurrek 2009ari. Goizetik hasita, etxez-etxe eskean aritu ziren. Baserritarrez

jantzita, koadrilla ttikitant ibili ziren urtatxa eske herri inguruan, nahiz baserrietan.

Kontzentrazioa

Azken urteetan bezala, kontzentrazio isila egin zuten abenduaren 31n Herriko Etxeko atarian. Etxetik kanpo dau den euskal presoak oroituzituzten dozenaka lagunek.

Txokolatada Larraburuan

Haurrentzako txokolatada ere antolatu zuten Larraburia Jubilatutik Elkartearen urtarrilaren 6an. Errege Eguna ospatzeko, 50 haurretik goiti bildu zen berendua egin eta opariaren zozketan parte hartzeraz. Giro ederrak ez zuen hutsik egin.

Yenbe eta darbuka ikastaroak



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Trikitixa taldeko kide batzuk, Olentzerorekin batera kalejiran.



ARGAZKIA: MARI CARMEN LAREGUI

Pandereta ikastaroa, irakasle berriekin

Alaitz Danboriena eta Maitane Alzuguren dira pandereta ikastaroa emateaz arduratzen diren irakasle berriak. Urte luzez lan hori egin duen Nagore Ansalasi lekukoa hartuz, 13 laguneko koadrillarekin biltzen dira astero Iharrian. Argazkian ikasle batzuk ageri dira, Igone, Rafaela, Eduarda, Uxue, Leire, Olaia, Maria, Elene, Aritz, Aimar eta Martxel, bi irakasleekin batera. Erran digutenez, «hagitz kontent gaude. Pandereta jotzen ikasteaz gain, kantatzen ikasten ere aritzen gara».

Iruñe eta Itxaso Elizagoiñen eskutik, perkusio tresna horiek ikasten hasi da bartz laguneko koadrilla ttiki bat astelehen arratsaldetan.

Lehenbiziko aldia da yenbea eta darbuka jotzen erakusten dela Etxalarren eta «gogoz handiz ari gara, instrumentu desberdin eta bi-

zia delako, eta ikasleek gogo handia erakusten dutelako» erran digu Itxasok. Oraindik bada go izena emateko aukera.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUÑ

sarroha
gostetia ostetia

57 do etegara 25 bajo 34700 bera (navarra) 1948 63 08 99 www.sarroha.net

USOA
nekazari kooperatiba

ganaduentzat pentzurik egokiak

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Manterola

Tekniko instalatzailea

Hurgintza • gasa kalifikazioa

Tfnoa: 629449602 • BERA

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktua

Etegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

ARANTZA

LUDETEKA → GIZARTE ZERBITZUEK ANTOLATUTA

Ilbeltzaren 8a bitarte izanen da Haur Txokoa

Oporraldi honetan Haur Txokoa kokatu da eskolan

Nerea ALTZURI

2010eko hasierako egunak. Urteberri On! Eta herrian egunerokoaz gain, tenoreari begira izan ohi diren ekintzak pasatu dira: Olentzero, Urtezahar, kabalgata... Ora indik, ordea, eskolako umeak ez daude eskolan, ez behintzat, ikasturteari dagozkion kontuekin. Eskola Haur Txokoa-ren gune da. Abenduaren 23az geroztik, goizeko gaztetxoak Dindaia Fundazioko begiraleekin biltzen dira, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako ekimenaren bidez. Ortziral ho-

netan bukatuko da xoko honetako eginbeharra.

Baltikoko hiriburuetan barna kruzeroa

Urtero herritar kuadrilla baten artean bidaia antolatzen da kanpora, eta aurtengoan Baltikoko hiriburuetan barna kruzeroa egingen da. Irailean izanen da baina izen-emateko azken eguna ortziral hau da, hilak 8 (deitu 948 634030 telefonora).

Eskolako berriak

Abenduaren 16an Bortziritako Ipuin Lehaketako sari banaketa izan zen Beran. Arantzako Eskolatik hiru ikasle sarituta izan dira euren lanen bitartek: Oihana Etxeberria, Sara Almandoz eta Gurtze Iparragirre. Zorionak!



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Txistularien topaketa

Joan den abenduaren 12an eskualdeko 25 ttuntunlari bildu ziren herrian, topaketaren bortzgarren edizioa txistu soinu hornitzeko. Beratararak, lesakarrak, baztandarrak, iruindarrak eta bertakoak bildu ziren. Goizean, 11:00 aldera hasitako lehenengo karrika itzulian, plazatik abiatuz eta Osiña eta Goienburu auzoetan barna pasatuz inguruak alaitu zituzten. Ondotik, zortzi zortzikalarik herriko Zortzikoa eta hiru bueltako Mutildantza dantzatu zituzten plazan. Bigarren karrika buelta plazatik hasi eta eliz ondotik Petrisenean barna joan zen eta handik Larreta auzoa hartu zuten txistulariek. Tartean, Aterpen hameketakoa izan zuten. Plazara itzuliz, Juan Miguel Biurrarena Almandoz Ixkiboko txistulari eta txistugile zenari buruzko informazioa nahiz gure artean ez dauden nola gaur egun txistua eta atabala jotzen dutenen argazkiak ikusgai egon ziren Gorapean. Aspaldi eta berriki ateratako argazkien bildumatxo bat izan zen. Eta bilketan lagundu diguten guztiei eskerrak emateko probetxuko dugu tartetxo hau. Goizari akabera emateko Pabloenean bazkaria izan zen. Bazkalostea luze joan zen eta txistua barrenean nahiz kanpoan jotzen aritu ziren txistulariak. Gainera, txistua jotzeko gogoarekin gelditu ziren batzuk... Arantzarek Bera aldera pasatu zuten lekukoa heldu den urteari begira.

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNA

Olentzero menditik jautsi zen opariak banatzera

Nerea ALTZURI

Abenduaren 24ko arratsaldean baserriarrez jantzitako dozenaka gaztetxo, guraso, maisu... orohar derrotar bildu ziren goi-goiz herrian barna kalejira egiteko. Plazan akautu zen itzulia

eta geldiuneak Larreta, Goienburu eta Pisutan izan ziren. Juxtu euri zaparrada baino lehen kanta batzuk kantatu eta trikitilariak lagun zituela olentzero mendi gainetik herrira jautsi zen opariak banatzeko. Neke aurpe-

gia, ikatz puxkak larruan, baina zakua opariz bete zekarren ikazkinak. Opariak banatu eta ume guztiekin solastu eta besarkak eta muxuak eman ondotik, opariak banatu zituen. Tartean, guraso elkarteak prestaturiko txistorra ogitartekoak eta zukuak partitu ziren eta aurten estreineko aldiz, udaletxearen eskutik, gopapean txartainak edo danbolinak dantzan eta gaztain erre goxoak zeudun dastatzeko. Goxo joan zen arratsalde bukarrera.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA,
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alzate, 1 - Tf: 948 630 083

AIZKORA → APUSTUAK ETA TXAPELKETAK 1949-2009

Antton Espelosinen liburua salgai

Irabaziekin Mikel Mindegiari eskultura egin nahi zaio Zubietan

Jaione OTXANDORENA

Azken alean aipatu bezala, Antton Espelosin sunbildarrak azken 60 urtetako aizkora apustuei, txapelketei eta txapeldunei buruzko liburua idatzi du. Joan den abenduaren 18an izan zen *Aizkora apustuak eta txapelketak 1949-2009* liburua-aren aurkezpena. Donato Larretxea aizkolaria eta Patxi Astibia eta Gabriel Saralegi aizkolaria ohia bere ondoan

izan ziren Ulibeltzak elkartearen, eta zenbait komunikabidetako kazetariak ere. Liburua kalean dago dagoeneko, inguruko herrietako liburudenda eta dendetan erosi daiteke, baita Iruñako Xalbador liburudenda eta Donostiko Bilintxen ere. 1.500 ale argitaratu ditu, denak euskaraz, eta 30 euroan salgai jarri ditu. Irabaziekin, Mikel Mindegiari eskaintako eskultura jarri nahi luke Zubietan. 785 apustu eta txapelketen inguruko informazio zehatza eta argazkiak lortu ditu eta Euskal Herriko 12 txapeldunen biografia laburra ere ageri da liburu mardulean.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Gabriel Saralegi, Patxi Astibia, Antton Espelosin eta Donato Larretxea aurkezpenean.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Eguberrietako ohiko ekitaldiak primeran joan dira

Abenduaren 24an hurrek gurasoekin batera Olentzerorekin herriko itzulixka egin zuten Gabonetako kantuak abestuz. Ondoren Ulibeltzak elkartearen berendu goxoa egin zuten eta Olentzerori eskutitzak emateko aukera izan zuten. Eguberri gauean gazteak eskean atera ziren baserriz-baserri, eta Urtezahar gauean Ulibeltzak elkartearen egindako afarian ere giro polita izan zen.

TATANKA ONENA PREZIORIK HOBERENEAN

STIHL

GASOLINA MOTOZERRAK **199€**tik

* Eskaintza honek 2009ko abenduaren 31 arte balio du

Tatanka zure banatzailea Bortzirietan, Balmanta, konponketa eta ordeko piezak
Bittoria, 6 - 31700 LESAKA - T. 948 638 299

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

m bentamiguel

denda, jatetxea eta ostetua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa - 948 631 209

DONEZTEBE



ARGAZKIA: NAFARROAKO JUDO FEDERAZIOA
Oskar Mindegia Federazioaren eskutik saria jasotzen.

KIROLA → ERREKA ELKARTEA SARITUA

Erreka elkartearen Iana saritu du Nafarroako Judo Federazioak

Nafarroako
Judoaren
Federazioak
eman dio saria

Erreka elkarteak. Erre-
kako eta Larrabideko
Teknikazio Zentroko
judokak, eta Oskar
Mindegia entrenatzaile-
a izan izan ziren eki-
taldian.

TTIPI-TTAPA

Urteetan egindako
lanak saria hartu du tru-
kean. Erreka Kirol El-
kartea saritua izan da
judoaren inguruan egi-
ten ari den lanagatik.

Urteak daramatza
Oskar Mindegia judo
eskolak lanean, eta
kirolari onak atera di-
ra, gainera. Bada, joan
den hilabetean, Nafa-
rroako Judo Federa-
zioaren 50. urteurren-
aren harira, ospakizuna
egin zen Iruñean, eta
hantxe jaso zuen saria

Dantzariak ere Interneten

Dantzariak ere Inter-
neterako saltoa eman
dute. Dantzarien eki-
taldi, entsegu, argazki,
bideo eta bertzelako in-
formazioa jasotzen du-
en bloga egin baitute:
[http://doneztebekodan-
tzariak.blogspot.com/](http://doneztebekodan-
tzariak.blogspot.com/).

Joan den urteko
azaroa erdialdera sor-
tu zuten bloga, eta in-
formazioa euskaraz da-
go.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Mari Cruz Arregik jaso du 2009ko Zilarrezko Titarea

Urtero bezala, Santa Luzia Eguna ospatu zen abenduaren 13an. Egia da ga-
rai batean indar haundiagoko ospakizuna zela, baina halere, giro ederrean
joan zen. Mezarekin hasi zen eguneko egitaraua eta hemen Mari Cruz Arre-
gik omenaldia jaso zuen. Beretzat izan zen 2009ko Zilarrezko Titarea, baita
lore-sorta eder bat ere. 67 urte ditu gaur egun Arregik, eta 16 urte zituenean
hasi zen bordatzen. Ondotik, Aurrekua eskaini zioten herriko bi dantzarik.
Argazkian omendua ageri da, bere familiakoekin. Omenaldiaz gain, artisau
erakusketa ere izan zen.



ARGAZKIA: ASIER PAGOAGA

'Muga guztien gaineratik' giro ederrean Kultur Arteko Topaketa

Muga guztien gaineratik lelopean ederki joan zen abenduaren 12an Donezte-
ben egin zen Kultur Arteko Topaketaren azken besta, Malerrekako Manko-
munitateak, Bidelagun, Malerrekako Gazte Asanblada, Gazte Burrenba eta
Antrotoki elkarteak laguntzaz antolatua. Mundu osoko jaki, bitxikeria, musi-
ka eta dantzaz gain, ginkana eta San Miguel ikastetxeko 3. mailako ikasle-
ek "Hiru koloretako tribuak" eta "Bagoaz bidaian" antzeslanak aurkeztu zituz-
ten eskolan. Ekuadorko Alma Latinaren dantzak, Ascana elkarteak kapeoi-
ra, Sunbillako dantzariak, Pueblo Negro taldearen rapa eta bertsolariak ere
izan ziren jaialdi berezian. Afari batekin akitu zen Kultur Arteko Topaketa.

BERA Zure inguruak klasa guztietako insektuz
(xomorro, zinoerre, ormiorma, kukuxu...)
eta orretoi xagotuz garbitu nahi baduzu,
deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

**BEINTZAKO
OSTATUA**

☎ 948 45 00 14

web: www.beintzakostatuak.com
www.beintzakostatuak.com
11200 BEINTZALARAIN

ORBELA

ZUBIONDO
Jatetxea

lagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 64 474

URROTZ



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Herriko gaztetxoak etxez etxe ibili ziren eskean.

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Olentzero zaldi gainean hartu eta kantuan ibili ziren herriko gaztetxoak

Urtezahar gauean gazteek elkarrekin afaldu zuten giro ederrean

Joseba URROTZ

Eguberrietako ohiko ospakizunak bete dira Urrotzen ere. Abenduaren 24an herriko gaztetxoek egindako Olentzero apaina zaldi gainean hartu eta hor ibili ziren etxez etxe eta ba-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

102 kiloko basurdea

Xabier Madariagak 102 kiloko basurdea hil du inguruko mendietan. Haundiagoak ere omen daude, baina pisu horretarako botatzea ez da ohikoa. Ehiztaria pozik egoteko modukoa da nonbait.

serriz baserri eskean, zarea arraultze, fruta eta bertzelako gaiekin betez. Berendu goxoa egin zuten herrian bildutakoarekin!

Bertze gainerakoan ez da aparteko ospakizunik egiten Urrotzen.

Erregeen zaldiak ez dira gure inguru honetara ailegutzen. Hori bai, gazteek Urtezaharreko afaria elkarrekin egin zuten eta urte berriari ere behar bezalako hasiera eman. Hori bada, Urte Berri on deneri



PERTSONAIA
Unai MADARIAGA

Errioxako Txapelketan irabazle

Ez da etxera txapela soinean bueltatu den lehenbiziko aldia, baina Errioxako III. Pilota Torneotan Unai Madariagak lortutako garai-pena ezin aipatu gabe utzi. Berandu bada ere, aipamena merezi baitu. Doneztebeko Erreka Pilota Eskolan ari da Unai, eta jubenetan Naparra taldeko Lukinekin batera txapela irabazi zuen Errioxan joan den urtean. 22-9 irabazi zieten Mendinueta eta Zinkunegiri.



Abonatu LESAKAra 2x1 KANPAINA

BI ABONATU BERRI, MATRIKULA BAT ETA HILABETE BAT DOAN

Baldintzak:
- Urteko eta bakarkako abonatuentzat bakarrik.

Eskaintza honek 2010eko apirilaren 30a arte balio du

Galdetu Kiroldegian dauden eskaintza guztien informazioa

Informazio gehiago:
Tel. 948 637 400 e-Posta: lesaka@urdisl.com






ITUREN

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Eguberrietako ohiko ekitaldiak ospatu dira egun hauetan

Oihan Goizueta izan da Aurtizko Olentzero ttikia

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala, Olentzero eman zion hasiera Eguberrietako ospakizunei. Abenduaren 24an Olentzero 16:00 aldera etorri zen herrira, eta etxeko ttikienek, gaztetxoek eta gurasek behar bezalako ongi-etorria eman zioten. Aurtitzen Oihan Goizueta izan zen aurtengo Olentzero ttikia. Eta Iturenen, berriz, Olentzero bera etorri zen eta herritarrek aurrez-aurre agurtzeko aukera edukitu zuten.

Guraso Elkartearen zozketa

Hainbat berrikuntza ikusi dira eskolako Guraso Elkartearen aldean aurten. Izan ere, boletoak eta 2010eko egutegiak atera ditu herrian saltzeko, 4 eurotan eta Guraso Elkartearen ki-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Eguberrietako ospakizunak zintzo bete zituzten Aurtiz eta Iturenen.

deei eskatu behar zaie. Gutti goitibeheiti duela hilabete bat eskolako haurrei ateratako argazkiarekin osatua da egutegia. Boletoekin zozketatutakoa, berriz, ikasleek etxetik eramandako produktuekin osatutako zare eder bat izan zen. Abenduaren 22an egin zen zozketa 331 zorbakiari egokitu zaio.

ARGAZKIA:
AINARA MINDEGIA

Eguberri ongi-etorri beroa eskolan

Goizean hasi eta eguerdira bitarte azken aldian ikasitako kanta, dantza eta koreografiak eskaini zituzten eskolako ikasleek Eguberrietako oporrak hartu aitzineko azken egunean, abenduak 22.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Martiko
Poi Zelan, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Añabaituen adituen eta enituen



DENDA
8.30etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN

Modu berezian ospatuko da aurtengo San Anton eguna

Igandea denez, egun osoan ekitaldiak izanen dira

Fermin ETXEKOLONEA

Igandearekin izanen da aurtengo San Anton eguna, urtarrilaren 17an, eta asteburua dela aprobetxatuz, berezia izatea nahi da, garai batean herrian eta inguruan zuten garrantziaren erakusle. Hala, goizean hasita, egun osoko egitaraua prestatu da.

- 11:00etan meza San Anton basilizan.
- Ondotik, luntxa basilizan.
- Segidan herriko gazteen artean herri kirolak.

- 13:30ean Herriko Etxeko estalpean bazkaria. Trikitilariak alaituko dute bazkalondoa eta txartelak, berriz, herriko ostatu eta dendetan egonen dira salgai.
- 16:30-17:00 aldera haurrentzako talo tailerra izanen da.
- Ilunabar aldera, helduentzako mus txapelketa Herriko Ostatuan. Sari bereziak banatuko dira irabazleen artean.
- Ilunabarretik aurrera Joxe Angel akordeoi-lariarekin dantzaldia izanen da.

Garai batean hain besta handia zena berreskuratu nahi da neurri batean, eta ea bada



ARGAZKIA: INES GEREKA

Joxepa Anttoni Ezkurak 103 urte eta osasuntsu, halere

Sekretua? «Osasuntsu bizitzea». Horixe erantzun dio bati baino gehiagori egun hauetan Joxepa Anttoni Ezkurak, 103 urte betetzeko sekretua zein den galdetuta. 103 urte alajaina! Olasonekoborda baserriko emakumeak 103 urte bete zituen Santa Luzia egunean, abenduaren 13an, eta osasunez ongi dagoela erakutsi zuen. 29 urterekin ezkondu eta sei seme-alaba eduki zituen eta gaur egun hiru seme-alabekin bizi da. Alaba Pakita izan du urteetan ondoan zaintzen, eta horren emaitza agerikoa da, 103 urte ez baititu edozeinek betetzen. Urtebetetze egunean hainbat herritarren bisita hartu zuen etxean, eta Santa Luzia egunean jaioa izaki, zergatik ez zioten Luzia edo Lutxi izena paratu galdetu omen zion norbaitek. Bere amatxiri Joxepa Anttoni izena ikaragarri gusztatzen omen zitzaion eta horixe izan omen zen arrazoia. Trikitilarien taldea etxean bisitan joan eta norbaitek dantzaria izandakoa ote den galdetuta, zera esan zuen: «ezkontza egunean ere ez nuen dantzatu, eta nola hasiko naiz ba orain 103 urterekin!». Ikusten denez, umorerik ere zaio falta Joxepa Anttoniri eta segi dezala urte askoan horrela. Bide batez, zorionak gure partetik ere!

animatzen den jendea. Ez lehen adina, baina beharbada aurtan ere

izanen da aziendak ekarri eta basilazari hiru buelta emanen diz-

kion herritarren bat ere. Hori ere galtzen joan den ohitura izan baita...

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

Eguberrietan gehieikeriak egin dituzula?
Opor-ondorengo sindromea duzula?

Non Elgorriagako Bainuetxean baino hobe horiek denetaz suspertzeko.

Eskaintza, tarifa, tratamendu eta abonamendu berriekin.
Zatoz eta gozatu gure igerilekua, gimnasioa eta gastronomia bikainarekin.

Espero zaitugu

Errotaldea z/g.
31744 Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com

ERATSUN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Ilbeltzaren 15tik 17ra ospatuko dira iñauteriak

Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak ibiliko dira kalejiran

eta baserriz baseri kalejiran ibiliko dira mo-zorroturik Angel Mari Peñagarikano eta Altor Mendiluze bertsolariekin. Hauek egun luzea izanen dute Eratsunen, gauean bertso-afaria izanen baita, beraien kantari direla. Gero, Modesto akordeolariarekin dantzaldia izanen da. Inauteriak bukatze-ko, igandean herri bazkaria egingen da.

TTIPI-TTAPA

Eratsungo inauteriak gainean dira, ilbeltzaren 15etik 17rako asteburuan ospatuko baitira. Ohiturari eutsiz, otorduei eta mahain-guruari lotutako ospakizunak izanen dira. Ostiralean, afaria izanen da. Larunbatean, bazkaria egingen dute gazte-ek eta gero etxez etxe

UTZITAKO ARGAZKIA
Herriko gaztetxo eta gazteak bertsolariekin batera kalejiran ibiliko dira larunbateko bazkalondoan.



Zalain
JATEXEA RESTAURANTE




Zalain Auzoa zig 31780 Bera - Nafarroa
T. 948 631 106 www.zalain.com



ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58



Gure Haragia
Nuestra Carne



Etxetik harbil Hondarribian!!

Donostia kalea • Sokoa Merkataritza gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com



estatxa
centro náutico

5
BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA
Itsasketarako tituluak lortzeko Eusko Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarrizko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

LEGASA

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

Frontoiaren ondoko komunak, dutxak eta biltegia akitu dituzte

Hiru hilabetez bi langile aritu dira lanak egiten

tik, biltegi haundi bat. Bertan, kontzejuak eta gazteek gauzak uzteko tokia izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxura hauxe du kanpotik frontoiaren ondoan egin den eraikin berriak.

TTIPI-TTAPA | LEGASA

Irailaren erdialdean ekin zioten Joxe Mari eta Martinek frontoi ondoko dutxa, komun eta biltegia egiteari. Hiru hilabete pasatu dira eta lanak xarmanki akitu dituzte.

Eraikuntzan bi zati bereizi behar dira: batetik neska eta mutilentzako bina dutxa, aldagelak, takilla eta komun bana daude. Eta bertez-



UTZITAKO ARGAZKIA

Olentzero, aspaldiko partez menditik bisitan

Urtero bezala, 16:00etan Olentzeroren panpina hartu eta Kontzejutik txistularien laguntzarekin herriari buelta eman zioten gazte, haur eta heldu kuadrillak. Plazara iritsi eta ohi bezala berendu goxua zuten prest. Egiten zuen hotzarekin ederki sartu zen halako otordu goxoa. Ilundu zuenean, ordea, ikaragarriko sorpresa hartu zuten bertan ziren guztiak Olentzero asto gainean menditik barna heldu zela ikusita. Bi laguntzaile zuten opariak ekartzen laguntzeko, Jon eta Jokin. Herriko txikiei, urte osoan aront ongi portatu zirenez, opari bana eman zien Olentzerok. Hurrengo urtera arte agurtu eta bidai ona opa eta gero, bere astoaren gainean mendira itzuli zen deskantsatzera, gauen zuen lan guztia ongi egiteko.

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EGOBERRIAK

Gurean ere ez du hutsik egin Olentzerok

Jaiotza biziduna ere ikusi dugu Eguberriotan

uruan bildu eta giro ederrean egoteko.

Urtero bezala, garai honetan Olentzerok bisita egin zigun, menditik jautsi zen kantuak erran bezala, eta gaztetxoekin eta ez hain gaztetxoekin elkartu ondotik, herriari bira eman zion. Segidan merienda eder batez gozatzeko aukera izan zu-

TTIPI-TTAPA | NARBARTE

Negua, hotza eta sutondoan egoteko gogorak iritsi zaizkigu. Eguberriak dira garai aproposak horretarako, maite ditugunarekin mahai ing-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jaiotza biziduna egin zuten elizan Eguberri egunean.

ten trinketean, eta opariak banatutakoan, mendira itzuli zen. Hurrengo urtera arte Olentzero!

Bertzalde, Eguberri Egunean, herriko bolondres batzuek jaiotza biziduna egin zuen elizan.

Ibilgailuen azterketa

Urtarrilaren 29an nekazal ibilgailuen azterketa egingen da plazan.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → ZILARREZKO URTEBETETZEA

Abenduan bete zituen 25 urte Umore Ona elkarteak

Gaur egun 236 bazkide ditu

Esteban AROTZENA

Kasualitateak horrelaxe nahi izanda, lau hilabeteren barrenean bi urteurren borobil eman dira herrian: Umore Ona peñaren 50. eta izen bereko elkartearen 25.

Abuztuko urrezko ospakizunek bigarren mailan utzi dute nolabait abenduko zilarrezko urtebetetzea. Elkarteko bazkideen artean hainbat esames sortu du horrek, asko baitira urteurren honek dizdira handiagoko ospakizunak merezi zituela pentsatzen dutenak. Dena den, orain dela aste batzuk ospatutako Atalen Eguna festa hunkigarri eta ederra izan zen, eta abenduaren 20ko bazkariari ere erantzun ederra eman zieten elkarteko bazkideek.

Sasoi ederrarekin bete ditu 25 urte Umore Ona elkarteak. 99 bazkide zituen 1984ean atak ireki zituenean. Gaur egun berriz, 236. Urtero bizpahiru gazte hartzen ditu bere baitan eta horrek etorkizuna ziurtatzen du zalantzarik gabe. Udaletxetik dirulaguntza jasotzen badu ere horretarako, Umore Onaren babespean daude herriko kirol eta kultur mugimendu gehienak, pilota, futbito, dantzari taldea eta abesbatza esate baterako. Indartsu abiatu da beraz 50. urteurrenarentz gaur egun Ibon Elizegi presidente duen Umore Ona elkarteak.

Konposta

Azken bizpahiru urte hauetan etxeko hondakin organikoak eskolara eraman dituzte ikasleek. Hondakinak argazkiko konpostagailu-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Abenduaren 20ko bazkariarekin ospatu zuten elkartearen mende laurdena.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Abesbatzaren emanaldi arrakastatsua abenduaren 19an

Herriko Abesbatzak ohiturari eutsi eta Eguberrietako kontzertu bikaina eskaini zuten abenduaren 19an. Neska-mutikoak ere kantari aritu ziren.

ra bota dira, eta ongi zaindutakoan, kalitateko lur organikoa lortu da. Lur hau ikasleek etxera eraman dute. Prozesuaren ardura Maribel Lujanbioren gain egon da: Hezeegia zegoenean orbela bota, nahastu, aireratu...



Baiatzinikin...

Herriko Etxeko artxiboa digitalizatzeko 14.000 euroko dirulaguntza lortu duela Udalak Nafarroako Gobernutik?



Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

behetik

Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888

www.behetik.com



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

BERTSOLARITZA → TXAPELKETA NAGUSIA

Bat txapelduna eta bi azkeneko muturreraino iritsiak

San Martinetan argazki erakusketa inginen da

Txapelduna bat eta sailkapenean zazpigarrena bestea.

ASPALDIKO OHITURA

Duela hamar bat urte hasi ziren bertsolari batzuk Aranon elkartzen, noski, tartean Xabier Legarreta. Esan liteke Hernaniko bertso eskolako zati bat Aranora etorri zela. Hasiera batean elkarrean biltzen hasi ziren kantatzeko, bertan afalduz. Orain, ordea, Ganbaran kantatzen dute eta ondotik, lehengo lekuberean afaldu. Osteguna izaten dute elkartzeko eguna.

Herriarentzat ere oso aberatsa da, inongo zailantzarik gabe, Ganba-



rari horrelako erabilera ematea. Beraz, zorionak eta urte askoz etortzen jarrai dezatela.

Zikiro-jatea

Abenduaren 11n Kontzejuko tabernan eman zen afarian 25 lagun inguru elkartu ziren, tartean Goizuetako gazte batzuk. Betseko-bordatik eramandako zikiroa izan zuten menua. Gisa askotaraprestatu zuten Imanol eta Ainhoak: gisatua, saiheskia erre eta xerrak. Afalostean emakumeak musean aritu ziren.



ARGAZKIAK: XABIER LEGARRETA ETA BERTSOZALE ELKARTEA
Goiko argazkian Mendiluze eta Maialen Ganbaran bertsoan prestatzen, eta behean Maialen, txapela jantzi ondotik.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

estretol funtsak
albornozak
estretol noralkoak
ohe estalkiak
mairalreak
mantelak
kaxinak
tsutak

Aste txuria. Merkealdiak.
Urtarrilaren 15etik aurrera

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

LEITZA



ARGAZKIA: HITZA

Tarragonatik Plazaolako eredia ezagutzera etorri ziren.

TURISMOA → TARRAGONATIK PLAZAOLARA

Plazaolako esperientzia garapen eredia da Tarragonako Terra Alta eskualdearentzat

Natur bidearen
esperientzia
ezagutu nahi
izan dute

Asier IMAZ

Badirudi, Plazaolako natur bidearen inguruan egindako sustapen lana eredu garria dela. Izan ere, joan den hilabetean, Tarragonako Terra Alta eskualdeko alkate, enpresari eta tokiko garapen agente talde bat Nafarroara etorri zen, zonalde honetan Plazaola Partzuergo Turistikoak Plazaolaren natur bidearen inguruan egindako

sustapen ekonomiko eta produktu turistikoaren garapena ezagutzeko asmoz.

Udal ordezkariekin bildu ondoren, Uitziko tuneko obrak, berritutako geltokia, Mendukilo leizeak eta Peru-harri parkea bisitatu zituzten. Instituzioek ondare baliabideetan egindako apustua, eta herriko ondarearengan dagoen «gogo bizia» nabarmendu zituzten.

Inauteriak

Aldizkari honen gehigarrian, inauteriei buruzko xehetasunak aurkituko dituzue.



ARGAZKIA: HITZA

'Maxurrenea herrintzat' uzteko eskatu dute ehunka lagunek

Maxurrenea herrintzat, Utzi pakean aldarrikatu zuten ehunka herritar eta kanpotik etorritakoek abenduaren 12ko manifestazioan. Azaroaren 29an kuartelean izandako gertakarien kontra protesta egitea eta guardia zibilek duten etxea herriari itzultzeko eskatu zuten. Jendeak lanak izan zituen manifestaziara ailegatzeko, goizean goizetik herri sarreretan kontrolak jarrita baitzituzten guardia zibilek. Pankarta eramaten ezker abertzaleko eta EAko udal ordezkariak jarri ziren, eta «atentatu faltsua» salatu ez ezik, «Maxurrenea inguruko auzokideei bereziki, eta herritar orori, elkartasuna eta laguntza» adierazi zieten. Horrez gain, Udalak gertatutakoa argitzeko eskatu zuen, baita «aurrerantzean horrelako gertakariak ez dadila errepikatu, horretarako ezinbestekoa ikusten dugularik indar armatuaren presentzia bertan behera geratzea». Udalak lehendik ere eskatu du gertakari hau argitzea eta bere ondorioak izatea, «baina gaur da eguna, oraindik ere inolako argibiderik, deirik, adierazpenik... jaso ez duguna. Komunikabideetan argitaratu dutena soilik dakigu; besterik ez. Baina bistakoa da, batzuk ardurak kentzen hasi zirela beraiek nahi zutena ez zela egiaztatzen hasi orduko; eta bistakoa da ere, norbaitek edo norbaizuk badakitela gu baino gehiago». «Behingoz utzi gaitzela bakean eta doazetik Kortestiz behera» ere eskatu zuten manifestazioaren deitzaileek.



ARGAZKIA: HITZA

Dantzaren bitartez kulturak uztartzen

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko Inmigratio Programak antolatuta, dantza eta musika izan zen protagonista abenduaren 12an. Herrian egun dagoen aniztasunaren adierazgarri, jendez bete zen zinema. Bertako dantzariak gain, Ekuador, Senegal, Errumania eta Ekialdeko taldeak ikusteko aukera izan zen.

suteia
instalazioak

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren arduraria hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

HEZIKETA → BIRZKLIKATZEN IKASTEN

Birziklapenaren garrantzia landu dute neska-mutikoek

Birbira tailerretan eskulanak egin dituzte

Juana Mari SAIZAR

Eskolako neska-mutikoek badakite papera, kartoia, plastikoa edo edukiontzia ez direla zuzenean zaborretara botatzekoak, eta horiekin gauza asko egin daitezkeela, tartean jostailuak. Horretan aritu ziren Eguberrietako oporrak hartu aurretik Birbira tailerretan.

Markoak, karpetak, plastikozko, kartoizko eta polispenezko pertsonaiak, maskarak, txorimailoak, kartoizko egiturak,

soinu tresnak... Denetarik egin zuten, eta birziklapenaren garrantziaz jabetu ziren.

Lehen elurtea

Sasoiko lehen elurtea ere ailegatu zaigu. Ez da oso handia izan, baina esan beharra dago, elurra egon denean eta egoten denean, udal langilea goizean goiz, kaleak garbitzen hasi dela.

Sarrio lantegira joan behar duten langileen zako oztoporik gabe egoten dira errepideak, industrialdea ere bai, eta eskolako ordua baino lehen, baserrietako pistak eta eskola ingurua txukuntzen saiatzen da. Etxez-etxe ibiltzen diren gizarte langileei ere, ka-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Neska-mutikoak pozik birziklapen tailerretan egindako panpinak eskuan.



ARGAZKIA: ANA GOÑI

Gurasoak ikasten

Guraso Elkarteak ikastaro batzuk prestatu ditu, Herrikoa Federazioaren eskutik bere funtzionamendua nola hobetu eta nola garatu daitekeen jakiteko.

leak garbitzen dizkie, baita behar denean berak

ibiltzen duen kotxean baserrietara hurbildu ere.

Udal zerbitzuen artean oso eskertua da.



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera	948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA	
Doneztebe	948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA	
Elizondo	948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	
Leitza	948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA	
Lesaka	948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA	

BAZTAN



UTZITAKO ARGAZKIA

Haizea Luzuriaga, Eguberrietako menu berriak erakusten.

BERROETA → EGUBERRIKO HIRU MENU BERRI

Sukaldaritza ikastaroa egin dute

Donamariako Bentako Haizea Luzuriaga aritu da irakasle

garrena eta postrea). Arras kontent gelditu dira bai ikasleak bai irakaslea ere.

BKTK entrenatzaile eta webgune berria

Lehen Maila Nazionalan ari den Lindutx Baztan BKT taldeak entrenatzaile berria du: Jokin Elizari atarrabiarra. Abenduan hartu zuen taldearen ardura, ordu-ra arte entrenatzailea izan zen Julian Baldantak dimisioa aurkeztu zuelako. Bertze aldetik, BKTK webgune berria ere badu Internet-en: www.baztangokt.es

TTIPI-TTAPA

Hirugarren urtez, Berroetako Gure Ametsa elkarteak "Eguberri hiru menu berri" ikastaroa antolatu du. Iaz bezala, Donamariako Bentako Haizea Luzuriaga aritu da irakasle. 13 emakume elkartu dira Gure Ametsa elkartearen hiru egunez plater berriak ikasteko, egun bakoitzean menu oso bat (lehenengo platera, bi-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

'Bidegabeko bidea' moldatua

Artesia gako *Bidegabeko bidea* oroigarria moldatua dago joan den hilabeteaz geroztik. Baztan-Bidasoa Antifaxista taldeak deituta, auzolanean txukundu zuten Falange y Tradicion taldeak erasotutako oroigarria. Maiatzaren 16an inauguratu zen oroigarria, Irurita eta Eugi arteko errepidea bortxan egin zuten preso errepublikarrak go-goan, baina 12 orduren buruan hondatu zuten. Falange y Tradicion taldeak bere gain hartu zuen erasoa. Talde honetako kide zirelakoan bortz lagun atxilotuak izan ziren, baina Artesiagan salatu zuten, hilabete baten buruan, libre zeuden.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroztegia proiektuaren kontra taldea sortu dute

Lekarozko Aroztegiako egitasmoaren kontra Aroztegia... Eta gero zer! taldea sortu dute hainbat baztandarrek eta abenduaren 17an aurkeztu zuten Arizkunenean. Proiektua «Baztango etxebizitzaren behararekin eta Baztango egiturekin, lurraldearekin eta nortasunarekin deus ikustekorik ez duen egitasmo urbanistikoa bat» dela kritikatu zuten, «batzuen kontu korrontea itsuski handitzeko». Proiektua Baztan osorako kaltegarria izanen dela azpimarratzeaz gain, egitasmoa geldiarazi eta «bertze gisako Baztan bat behar eta merezi dugulako» lan egingen dutela aipatu zuten.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkina
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

Thoa: 948 581 468
Mug: 630 364 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 - AMAJUR
www.mendialdea.com

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruña · irabeiko monastegia 62, 4ºC · 31011

BAZTAN

GALDEKETA → HARROBIA ETA BASURDEEN KOTOA

Ezezkoa eman diote amaiurtarrek harrobiari eta basurde kotoari

Boto-emaielen %95ek eman dute ezezkoa

Maite OTEIZA

Bi proiektusortu dute eztabaida Amaiurren: Muno aldean Punpulus-ta ondoan ofitazko harrobi bat egiteko proiektuak eta Amaiur eta Azpilkueta aldean, Mendialdea jatetxearen gaineko aldean, ehizako koto intentsiboa eta basurdeen parte egiteak. Harrobiaren proiektuari dagokionean, Azysa enpresak zundaketak egiteko baimena eskatua omen dio Udalarari. Badirudi zundaketaren helburua toki horretan ofita bada goen ala ez, eta baldin bada zein kalitatekoa den jakitea dela. Baina material ona agertuz gero, harrobia egitearen beldur dira Amaiurren. Ofita asfaltoa egiteko material bat da.

%87KO PARTE-HARTZEA

Abenduaren 5ean bi proiektuei buruz iritzia emateko bozketarat deituak izan ziren herritarrak. Bi kasuetan bai

ala ez erantzun behar zen eta parte-hartze al-tua eduki zuten bozketek: botoa emateko eskubidea zuten 229 lagunetatik 199k eman zuten botoa, %87ak, beraz.

Harrobiaren galdeketa, 199tik 189 lagunek ezezkoa eman zuten, boto-emaielen %95ak, alegia. Bortz lagunek harrobiaren aldeko botoa eman zuten, eta bertze bortzek boto xuria. Basurdeen kotoaren inguruan, 199 lagunetik 188 agertu ziren kontra, %94,5, hain zuzen. Bortzek baiezkoa eman zuten, eta seik boto xuria.

Aberastasun handia omen dugu baztandarrok zangoen azpian, gure inguruan, harrobi marna tarteka iratzarri eta bere atzaparrak erakustek daukutelakoz.

Aspaldixko Amaiurren, Alkurruntzen, zundaketak egiteko asmoa izan zen, Erdizen eta Pi-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Punpulus-tako harrobiari ezezkoa eman diote 189 amaiurtarrek.

HARROBIA	BASURDE KOTOA	PARTEHARTZEA
189	188	199
LAGUNEK eman zuten ezezko botoa harrobiaren proiektuari buruz galdetuta.	KOTOAREN KONTRA agertu ziren, %94,5. Bortzek baiezkoa eman zuten eta seik boto txuria.	LAGUNEK eman zuten botoa abenduaren 5ean egin zen bozketan, erroldatutakoen %87ak.

kotan berriki, eta orain berriz ere Amaiurrerat itzuli da. Honek ere negualdiak ditu, eta udaberria ailegatzean bueltaxka egin behar du, ea inguru honetan zerbait jatekorik baden ikusteko.



CLUB Mús xti

Gehiago Zuregatik Kluba
www.clubmasporti.com

Zure erosketengatik Gehiago ematen dizugu

Gehiago Zuregatik Klubaren kide egin zaituz doan Nafarroako Txikizkako Merkatarien Sarea
Informazioa: 948 20 72 46
eta Rural Kutxa eta Nafarroako Kutxaren bulegoetan

Beliko erosketak hurbillago

Ez galdu aukera hau

Zure fideltasunak saria du beliko dendetan

SENPERE

NEKAZARITZA → IDUZKI-LOREEN OLIOAREN ERABILERA SUSTATU NAHI DA

Herriko bortz laborari olioa ekoizteko kooperatibaren sortzean

Iduzki-loreen olioarekin erregaiak ordezkatu nahi dituzte ibilgailuetan

Franck DOLOSOR

Olioaren prestatzea erregaiak ordezkatzeko ez da ametsa, errealitatea baizik. Alemanian eta Austrian badira jadanik 25 urte iduzki-lore olioaren ekoizten dutela ibilgailuak ibilarazteko. Akitania-ko iparraldean ere lan hori hasi zuten duela zortzi urte eta abentura hori lotu nahi izan dute orain Euskal Herriko Laborantza Ganbera Elkarteak eta Iparraldeko zortzi laborarik.

Berriki kooperatiba bat sortu dute lur lanaz bizi diren lagun batzuek. Orotarat, 75 hektara iduzki-lore landatu dituzte Iparraldean eta Biarnoan. Horien artean, senperrak ere badaude. Gan den hazilean bigarren eskuko prentsa erosi zuten. Beren erranetan, iduzki-lorea apirilean eriten da artoa bezala; eta artoa baino aiseago sortzen da, nahiz eta gutiago ematen duen. Iduzki-lore hektara batek bi tona edo bi tona eta erdi ematen ditu, eta horren

heren bat olio bilakatzen da. Gainerakoa aziendei ematen zaiote.

BEZEROEKIN LANEAN

Kooperatiba berriak bi bezero baditu jadanik olioaren saltzeko: Bizi Garbia hego Lapurdiko herrien arteko sindikata eta Donibane Lohizuneko bi itsasuntzi. Bizi Garbiaren 12 kamiunetan olioaren baliatuko dute, erregaiaren biltegiaren %30 olio bezala nahi dute. Itsasuntziak, haatik, bakarrik

DATUA

75

HEKTARA IDUZKI-LORE landatu dituzte berriki Euskal Herriko Laborantza Ganberak eta Ipar Euskal Herriko zortzi laborarik.

olioarekin ibiliko dira otsailetik goiti. Marinelek esperientzia eginen dute eskuz-esku Fran-

tziko Laborantza Ministerioarekin. Petrolioaren partez olioaren baliatzeak ez du neholako arazorik sortzen laborariak beren lan tresnetan jadanik erabiltzen baitute. Gero eta karioago izan den petrolioaren gutiago erabiltzeko olio sorta txiki bat bertzerik ez da momentuz ekimen hau, baina nork daki, urte batzuen buruan egun guziko gauza izan liteke olio biologiko garbiarekin ibilaraztea gure tresnen motorrak...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Saihesbideko lanak aitzinera doatz

Karrika Nagusiko saihesbideko lanak gan den agorrilean hasi ziren eta gero eta argiagoa da zoin itxura izan den bide berri hunek. Jandarmeria ondoan itzulbide bat egiten ari dira, eta gero, pittaka-pittaka, bide berria egingen da Urgurin barna, Olha aldean den Ama Birjinaren itzulbideraino. Bideak kilometra bat eta 200 metrako luzera izan du eta orotaratzortzi miliuneko gastua sortuko du. Pirineo Atlantikoetako Departamenduko Kontseilu Nagusiak egingen ditu osoki lan horiek. Saihesbide osoa 2012 edo 2013 urtean baizik ez da idekiko. Lanak luzeak izan dira urtero bi miliun eskainiko baititu Kontseilu Nagusiak eta 80 metrako bi zubi eraiki beharko direlako Urdazubi ibaiaren gainean.

FLASH

Suhiltzaileak lanez gainezka

Herriko suhiltzaileek gero eta lan gehiago izaten dute. Iaz, 577 ateraldi egin behar izan zituzten, erran nahi baita, aitzineko urtean baino 77 gehiago.

Bertzalde, Santa Barbara beren zaindariaren bestaren karietarat, zorbait suhiltzaile ohoratuak izan ziren: Pascal Larzabal eta Jean Mitxelena 30 urtez egin duten lanarentzat; eta Jean Pascal Jorajuria, Jean Louis Bessonart eta Julien Ubiria 25 urtez eman duten laguntzagarik. Horrekin batera, ongi-etorria egin diete berriki talderat sartu diren bi gazteri. Senpereko suhiltzaileak boluntarioak dira eta beti prest dira herriarrak laguntzeko, beren bizia irriskuan ematen badute ere.

Dufau etxeguneko bideak berriak

Dufau etxeguneko bideak berriak dituen duela guti Herriko Etxeak. Orotarat 81 000 euro baliatu dituzte. Horko bizilagunek galdetu dute karrakako argiak hobetzea eta aparkatzeko tokiak hobeki tintatzea lurrean. 1970an sortu zelarik etxegune lasaia zen baina orain pasaia haundia jasaten du hilerrak eta eskola berriki ondoan altxatu baitira azken urteetan.

ARMUA JAIETENA

T. 949 599 131
Euzkoan zure etxea. 5. eta 6. eraletan.
MONTXO

MONTXO OSTATUA
TARAKO-DENDAK
ANZAN-BORDA · VRDZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Dantzarineatik 2 km-tara

BERTSOLARITZA → IKASTOLAK, GAZTETXEAK ETA HERRIKO ETXEAK ANTOLATUTA URTARRILAREN 23AN

Alberdi, Zubeldia, Gaztelumendi eta Mendiluze ariko dira bertso saioan

Txartelak Herriko Etxeko edandegian daude salgai

Xan HARRIAGUE

Urtarrilaren 23an, larunbata, izanen da bigarren urtez Ikastolak, Gaztetxeak eta Herriko Etxeak antolatu duen bertso afaria Lur Berrin. Aurten ere puntako bertsolariak ariko dira: Uxue Alberdi, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze. Txartelak Herriko Etxeko edandegian erosi behar dira.



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Olentzero eta Mari Domingi herriko hurrekin

Herriko hurrek harrera egin zieten Olentzero eta Mari Domingiri eta hauek, esker onez, goxokiak banatu zituzten.

Errugbi denboraldi hasiera

Helduen errugbi taldeak sasoin hasiera eskasa egin du. Zortzi partidatetik hiru baizik ez di-

tu irabazi, eta gaineratiko bortzak galdu ditu.

Lehen itzulia finitzean seigarren postuan da 14 punturekin, alegia, sasoin bukaeran sailkatze-ko azken postuan. Gai-

nera, gibeletik puntu bakarrera ditu Pomarez eta Ziburu. Beraz, txapelketan aitzinera egin nahi badu udaberriari, eginalak egin beharko ditugutienez seigarren pos-

tu hori atxikitzeko. Gaitasunak baditu horretarako aurtengo taldeak, baina egonkortasuna falta zaio. Harritzekoa bada ere, irabazi dituen partidak gaur egun sailka-

penean bere aitzinean diren aurkari batzuen kontra egin ditu. Aldiz, gibelean direnen kontra galdu du. Heldu den partida urtarrilaren 17an jokatuko du Campeten.

FLASH

Herriko Etxeko edandegiko mus txapelketa

Aurten ere, mus txapelketa antolatu dute Herriko Etxeko edandegiko Maixan eta Veroniquek. Parte hartu ahal izateko izenak eman behar dira edandegian berean lehenbailehen.

Joko Berri txapelketa laster martxan

Heldu den larunbatean zortzi hasiko da Sarako Izarra pilota elkarteak urte guziz antolatzen duen Joko Berri txapelketa. Beti bezala, lau mailatan jokatuko da. Partidak astetartez iluntzean eta larunbat eta igande goizetan jokatuko dira.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

ZUGARRAMURDI

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Karroza ederra prestatu zuten Olentzero egunean neska-mutikoeak

Segidan euria
hasi eta
frontoian sartu
behar izan
zuten

Koro eta Margari

Zugarramurdiko neska-mutikoeak karroza ederra prestatu zuten abenduaren 24ean, karraketan ibiltzeko. Eguraldiarekin ez zuten suerte handirik izan, eta doi-doi pittat ibili ziren. Bainan segidan euria hasi zuen eta frontoira sartu behar izan zuten. Han beraien kantuekin segitu zuten eta Olen-

zerok borondatea saritu zien, hainbat opari utziz etxean.

Abenduaren 18ko elurtea

Abenduaren 18an elurra egin zuen. Ez zuen aunitzik bota, bainan hotz handia egin zue-nez, hormatu egin zen eta horrek bideetan arazo franko eman zituen, batez ere Urbia aldera eta Gaineko Bentako karreteran. Herriko elur kentzeko makinak lana azkarki egin behar izan zuen ortzira le gauen pala pasatzen eta larunbat goizean gatza botatzen.



ARGAZKIA: MARGARI

Herriko neska-mutikoeak Olentzerorekin, frontoian kantari.



ARGAZKIA: MARGARI

Elurrak mendiak ez ezik herria ere zuritu zuen abenduaren 18an.



Rosa Maria JUANENA AROZENA

Legasan, 2009ko abenduaren 16an

Urrotzen jaio zinen
abenduko egun hotz batean
geroztik elkarrekin egon gara
une on eta txarrean
aurtengo neguan utzi duzu
hutsunea gure artean
hala ere betirako egonen zara
zure famili guziaren bihotzean.

**Eskerrak une latz hauetan
gurekin egon zareten guztiei.**



Karmele ENETERREAGA IRIGOIEN

Lesakan, 2005eko ilbeltzaren 1ean, 56 urte zituela
V. URTEURRENA

Jada bortz urte, bortz urte luze
zu gabe, hutsik gaudela;
zure hutsunea hain da handia
ezin zen izan bestela,
gure artean sentitzen dugu
oraindik zure epela;
nahiz nagusi den goibela

hau da gure erregela,
hain zinen neska itzela
zure irriak, gure malkoak
alaitzen ditu homela;
jakin ezazu, ZURI eskerrak
orain garenak garel.

ZURE FAMILIA



Maialen IRIGOIEN ETXABIDE

Modesto Eneterreaga Esparzaren alarguna
Lesakan, 2009ko azaroaren 25ean, 95 urte zituela

Zurekin kantu ta historiak ez ditugu izan gutxi;
beti alaitsu, zein adoretu, iribarrea ezin utzi.
Nahiz ta bizitza gogorra izan, sekula ez duzu etsi.
Ezingo zattugu ahanzi, bihotza etzaigu itxi.
Zaindu itzazu bertze guztiak, zaindu zu ere ta etsi.
maitasun osoz hartu muxu bat, matte zattugu amatxi.

ZURE FAMILIA

EZKONTZAK

Jesus M^o Perez Nuñez eta **Josune Mancho Erimias**, Donostiakoak, abenduaren 12an Etxalarren.

Jose Joaquin Barriola Baraibar eta **Hilda Ortega**, Leitzakoa eta Venezuelakoa, azaroaren 30ean Leitzan.

Alain Fernandez Ariztimuño eta **Ainara Zubeldia Aizpuru**, Leiza eta Ibarakoa, abenduaren 5ean Leitzan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Maialen Gastearena Irisarri, Etxalarakoa, azaroaren 28an.

Ruben Mariñelarena Egues, Leitzakoa, abenduaren 8an.

Garikoitz Blanco Silvo, Gaztelukoa, abenduaren 9an.

Eneritz Zapirain Ariztegi, Oitzekoa, abenduaren 9an.

Ruben Mariñelarena Egues, Leitzakoa, abenduaren 8an.

Unai Hernandorena Iturria, Zugarramurdikoa, abenduaren 10ean.

Jokin Bengoetxea Leizagoien, Urdazubikoa, abenduaren 27an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Inaxio Baleztena Monako, Leitzakoa, abenduaren 12an, 51 urte.

Maritxu Murga Gurrea, Arizkun, abenduaren 5ean.

Jose Bertiz Galañena, Etxalarkoa, abenduaren 12an, 89 urte.

Francisco Javier Danboriena Etxeberria, Etxalarkoa, abenduaren 13an, 80 urte.

Jose Grajirena Mutuberrria, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 12an, 52 urte.

Dionisia Petirena Etxebeste, Arantzakoa, abenduaren 15ean, 89 urte.

Jesus Etxeberria Elizondo, Arizkungoa, abenduaren 15ean, 96 urte.

Rosa Maria Juanena Arozena, Legasakoa, abenduaren 16an, 53 urte.

Jose Maria Urrutia Ezkurra, Zubieta, abenduaren 20an, 71 urte.

Manuel Agirre Telletxea, Berakoa, abenduaren 21ean, 94 urte.



Manuel AGIRRE TELLETXEA

Beran, 2009ko abenduaren 21ean hil zen, 94 urte zituela.

*Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.*

ZURE FAMILIA



Inaxio BALEZTENA MONACO

Iruñan, 2009ko abenduaren 12an

*Gure gau ilunak
argituko dituen izarra
Buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzumaren islada
Zu gure bihotzean
beti altxatuko dugun
Inaxio maitea zara
AMA ETA ANAI-ARREBAK*

Inaxio BALEZTENA MONACO

*Beti iritarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin*

BALEZTENA ILOBAK



Josetxo GRAGIRENA MUTUBERRRIA

Beintza-Labaien, 1957/01/05-2009/12/11

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin.
Eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA FAMILIA

AIOROA, Joakin

Nafarroako Ingude Txapelketa lehen aldiz irabazi zuen kirolari ituren-darrak Sanferminetan.

AMAIUR

Sokatira taldeak Nafarroako txapel guziki irabazi ditu, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan.



Unai Apeztegia.

APEZTEGIA, Unai

13 urtez profesionalen aritu ondotik, 2008ko abenduaren 31n akitu zitzaion kontratua pilotari aurtiztarrari. Herriarren omenaldia jasozuen ekainaren 20an.

ARIZTEGI, Maika

Urtea Nafarroako Kros Txapelketa baterano mailan irabaziz hasi zuen eta irailaren 26an Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan bere bederatzigarren txapela jantzi zuen Igantzin, marka berria ezarriz (07:23). Tartean, Nafarroako Ingude Txapelketa ere irabazi zuen Sanferminetan eta aizkoran ere aritzen da.



Maika Ariztegi.



Arraiozek hirugarren aldiz irabazi du Baztan-Errekako laxoa txapelketa.

ARRAIOZ

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 30. edizioan bere hirugarren txapela jantzi zuen Arraiozek, Iñaki Mihura, Jon Gamio, Jesus Mari Launagarai eta Asier Zubigararekin.



Fede Arribillaga.

ARRIBILLAGA, Fede

Irailaren 30ean hil zen Arribillaga I.a, Etxalarako palista handia, 55 urte zituela. 18 urterekin debutatu eta Espainiako txapelkun izan zen Agustin anaiarekin bikote eginez. 1996an erretiratu zen. Etxalarako elizan omenaldi xumea eskaini zioten urriaren 11n eta bere errautsak Ursumiatsan botatuzten.

BERTIZ, Unai

Bigarren urtez segidan sunbildarrak irabazi zuen Nafarroako Harrijasotze Txapelketa, Sanferminetan egindako txapelketan. Hiru harrien artean 6.037,5 kilo altxatu zituen. Euskadiko harri txikien txapelketan ere ederki ibili zen.



Jon Bru omendua.

BRU, Jon

Txirindularitza profesionala utzi ondotik, herriarren omenaldia jasozuen beratarak otsaileko azken aste hondarrean. Txapela, oroigarriak, erakusketak, zikloturista martxa eta bazkaria izan ziren Bruren omenez.

DEBUTAK

Erremonte profesionalen hasi dira eskualdeko lau pilotari. Sanfermin bezperan Euskalen debutatu zuten Gorka Urtasun iruritarrak eta

Endika Urrutia saldiastarrak. Debutatzen azkenekoak, Haritz Zubiri goizuetarra eta Oskar Urrutia saldiastarra izan dira. Abenduaren 19an elkarren kontrajokatu zuten estreineko partida Galarretan.

DONEZTEBE

Futbol taldeak Nafarroako Kopa irabazi zuen ekainaren 20an, finalean Castillo de Tiebas taldeari irabazita. Sor-tu eta bigarren denboraldian lehen titulua lortu zuen Doneztebeko futbol taldeak.

ERASUN, Ander

Aurten ere bikain ibili da Eratsungo aizkolari gaztea. Urrezko Aizkorra txapelketa irabazi zuen 19 urtez behetiko kategorian eta 23 urtez behetikoan ere finalean izan zen.


ETXEGARAI, Fernando Espainiako Mendi Lasterketen txapelketan

2009 kirolari izend

azpitxapeldun izan da. Garaile atera zen Sara Korrika Trail Lasterketan, martxoaren 29an eta Euskal Herriko eta Nafarroako Koxkor Biltze Txapelketak irabazi zituen irailaren Leitzan eta Igantzin.

FAGOAGA, Itsaso

Skeet Olinpikoan Nafarroako Kopa eta Txapelketa eta Espainiako



Itsaso Fagoaga.



Doneztebe Futbol Taldeak Nafarroako Kopa irabazi zuen.

09ko rol ndegia

Txapelketa eta Kopa irabazi ditu tiralari lesakarrak. Europako Txapelketan doi-doi ez zen sartu finalean eta zortzigarren izan zen Osijek-en (Kroazia)

IGOERAK

Futboleant, Lesakako Bete Gazteko eta Berako Gure Txokoako talde nagusiek mailaz igoztea lortu zuten eta saskibaloian, bertze horrenbertze egin zuten Berako Toki-Ona Bortziriki taldeak.

IRIARTE, Esther

Nafarroako Txapelketa ez ezik Euskadiko Txingara Eramate Txapelketa ere irabazi zuen Goizuetan azaroaren 21ean. 44 plazarekin marka berria egin zuen.

LARRETXEA, Donato Mindegiak egindako erronkari erantzun eta Tolosako aizkora apustu handia irabazi zuen azaroaren 8an. Nafarroako txapelketaren finalean azpitxapeldun izan zen Nazabalen gibeletik Donezteben. Binakako Urrezko Aizkolarien txapela ere bigarren urtez irabazi zuen Aitzol Atutxarekin.

LASAGA, Iñigo

Mendi Lasterketen Nafarroako Kopa irabazi du Manttaleko korrikalari etxalartarrak. Horretaz gain, Sarako Kontrabandisten Lasterketa ere irabazi zuen lehen aldiz. Zumarraga-



Donato Larretxea Mindegiari nagusitu zitzaion Tolosako apostuan.



Iñigo Lasaga

Urretxu mendi lasterketan ere garaile izan zen.

MINDEGIA, Miel

Ez zuen Donatoren kontrako apostua irabazterik izan, baina Zubietan omenaldi handia jaso zuen irailaren 12an, Udalaren eskutik. Euskal Herri osoko kasik 50 aizkolari eta 7 harrijasotzaile berekin izan ziren.

OLANO, Arkaitz

Ezustea eman eta hirugarren mailako Euska-

diko Txapelketa irabazi zuen azaroaren 21ean Goizuetan. Berekin batera Oihan Larretxea igoko da bigarren mailara Euskadikoan.

PERURENA, Inaxio

295 kiloko errektangularrak altxatu zuen otsailaren 22an Azpeitian. 234 kiloko zilindroa esku bakarrez altxatu zuen apirilaren 25ean Leitzan.

PETRIRENA, Joseba

Nafarroako Orga Joko Txapelketan txapela mantendu zuen Joseba Petrirena beratarra. Mikel Pikabea beratarra bigarren izan zen eta Josetxo Urrutia leitzarri hirugarren.

REKONDO, Jon

24 urterekin, Euskadiko eta Nafarroako bigarren mailako Aizkora Txapelketak irabazi zituen leitzarri irailaren 6an Zestoan eta irailaren 27an Uhartan. Beraz, Nafarroan nahiz



Jon Rekondo.

Euskal Herrian lehen mailan ariko da aurtan.

SEIN, Karlos

Nafarroako Lasto Altxatze txapelketa lehen aldiz irabazi zuen Sanferminetako jaialdian.

SUKUNTZA, Mielmari laz bezala Nafarroako Txingara Eramate Txapelketa irabazi zuen Leitzako kirolariak, bere herrian irailaren 6an. Zigako Martin Zenoz bigarren izan zen.

UNSION, Txus

Saharako Maratoian parte hartu zuen Manttaleko korrikalariak otsailaren 23an eta 50 urtetik goitiko kategorian hirugarren izan zen. Nafarroako Mendi Lasterketen Kopan, beterranoen mailan bigarren izan da beratarra.

URRUTIA, Josetxo


Apirilaren 19an sei jasaldi eman zitzaion Hendaian 163,800 kiloko zilindro zaharrari (bere pisua bi aldiz eta arropa bat gehiago), marka pertsonala ezarri.

URRUTIA, Migel Mari

Buruz buruko Casino Kursoal txapelketa irabazi zuen erremontelari saldiastarrak bigarren urtez segidan. Final estuan 35-33 irabazi zion Zeberio II.ari.

VILA, Patxi

Gure Txokoak lehen aldiz antolatutako Larungo BTT igoera gogorra irabazi zuen txirindulari beratarra. Oraindik gogorragoa egin zaien zigorra ere bete du Patxi, bi urtetik urte eta erdira jautsi baitiote.



Patxi Vila.



Mikel Mindegiari irailaren 12an eskainitako omenaldian hainbat kirolari bildu ziren.

urtarrilak 7-20

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kirolak**

BERA | 2009.01.09

Santa Barbarara binakako igoera hirugarren urtez

Taillon mendian hildako Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiren omenez antolatu dute Manttale, Gure Txokoa eta Agerrak.

Ospakizunak

ESKUALDEA | 2009.01.17

San Antoneko ospakizunak Zubieta, Elizondo eta Lesakan

San Antoni debozio handia zaio eskualdean eta hainbat ospakizun izanen dira Elizondo, Erratzu, Lesakako Endara auzoan edo Zubietan, bertzeak bertze.

Bertsoak

ERRATZU-SARA | 2009.01.23

Bertso-afaria Erratzuko elkartearen eta Saran

Euskal Herriko finaleko bi bertsolari eta Nafarroako txapel-duna izanen dituzte Erratzun eta BECeke bertze finalistetako bat Saran, bertzeak bertze.

egun handia izanen da Endara auzoan. Bertziariak eta Oartzun-Irun aldeko jendea biltzen da San Anton ermitaren inguruan. Goizean meza orduero eta erromeria.

ELIZONDO

San Anton eguneko zozketa

Urtarrilaren 17an Francisco Joakin Iriarte Zahar Etxeari laguntzeko zozketa eginguten dute San Anton egunez.

ERRATZU

Emakumeen afaria

Urtarrilaren 17an Erratzuko emakumeak San Anton eguneko afarian bilduko dira.

ZUBIETA

San Anton eguna

Urtarrilaren 17an meza San Anton baselizan, gero luntxa eta herri kirolak. Herriko Etxeko estalpean bazkaria eta arratsaldean talo tailerra haurrentzat eta helduentzako mus txapelketa. Ilunabarrean Joxe Angel akordeolariarekin dantzaldia.

Erakusketak

ELIZONDO

Elias Garraldaren margolanak

Abenduaren 1etik urtarrilaren 15era Garraldaren margoak ikusgai izanen dira Arizkunenean.

Kontzertuak

AMAIUR

Gaupasa Herriko Ostatuan

Ilbeltzaren 16an gaupasa izanen da Herriko Ostatuan Ufestuek, Xutik eta Garraxi taldeekin, 23:00etan. Gan-torri autobus zerbitzua ere izanen da. Baztandarren Biltzarrak antolatua.

ELIZONDO

Raimundo Amador izanen da Lurren

Ilbeltzaren 16an emanaldia eskainiko du Raimundo Amadorrek 00:30ean Lur dantzalekuan. Sarre-ak aitzinetik 14 euro (Antxitonea eta Txokoto (Elizondo), Atxaspi (Lesaka) eta El Infiernito (Iruña) eta takillan 16 euro.

Ekitaldiak

ELIZONDO

Literatur sari banaketa

Ilbeltzaren 15ean literatur sari banaketa egingen da Arizkunenean, 18:00etan.

Emanaldiak

IRURITA

Irango diapositibak Gizarte Bilgunean

Ilbeltzaren 8an «Iran, topikoen aurkako bidaia» diapositiba emanaldia eskainiko dute Mila Gallastegi

eta Asier Aranzabalek Gizarte Bilgunean, 20:00etan. Baztandarren Biltzarrak antolatua.

Hitzaldiak

GOIZUETA

Adimen emozionala

Urtarrilaren 18, 25 eta otsailaren 1ean adimen emozionalari buruzko solasaldiak eskainiko ditu Gabi Goiak eskolan 15:00etatik 17:00etara. Guraso Elkarteak antolatua.

Inauteriak

ERATSUN

Mozorro festa

Urtarrilaren 15, 16 eta 17an inauteriak ospatuko dituzte. Ortziralean afaria, igandean bazkaria, kalejira Peña eta Mendiluze bertsolariekin eta bertso-afaria. Igandean herri bazkaria.

Ospakizunak

LESAKA

San Anton eguna**Urtarrilaren 17an**

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Raimundo Amador Lur dantzalekuan

Flamenco eta rock edo blues musika nahasten maisu den Sevillako gitarra jole eta kantaria Elizondora etorriko da urtarrilaren 16an, 0:30etik aitzinera. Sarre-ak aitzinetik 14 euroan salgai dade Elizondoko Antxitonea eta Txokoton, Lesakako Atxaspin eta Iruñeko El Infierniton. Egun berean 16 euroan salduko dira takillan. Belarriendako gustittoa!

**Bertsoak**

BERA

Bertso saio didaktikoa

Urtarrilaren 15ean bertso saio didaktikoa eskainiko dute Jamotoanean 20:30ean Iñigo Olaetxea, Eneko Lazkoz, Julen Zelaieta, Julio Soto, Miel Mari Elozegi "Luze", Xabi Terreros eta Estitxu Arozenak. Aurkezlea: Nerea Bruño. Didaktikaria: Karlos Aizpurua.

ERRATZU

Bertso afaria**Ilbeltzaren 23an**

Amets Arzallus, Xabier Silveira, Unai Iturriaga eta Jon Barberena ariko dira Erratzuko elkartearen, 21:00etan. Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi.

SARA

Bertso afaria

Urtarrilaren 23an

Uxue Alberdi, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze ariko dira Lur Berrin, ikastolak, Gaztetxeak eta Herriko Etxeak antolatutako bertso-afarian. Txartelak Herriko Etxeko edantegian salgai.

Mendi ateraldiak

LESAKA

San Antonera igoera

Urtarrilaren 17an San Antonera ateraldia antolatu du Beti Gazte elkarteak. Plazatik 08:00etan iteera.

BERA

Santa Barbarara igoera binaka

Urtarrilaren 9an Santa Barbarara binakako igoera antolatu dute Manttale, Gure Txokoa eta Agerra Mendi Taldeak.

Zinema

LEITZA

Urte berrian ere zine sasoiak aurrera


Urtarrilaren 8an eta 10ean Alejandro Amenabaren *Ágora* filma ikusgai.

Urtarrilaren 15 eta 17an Cary Joji Fukunagaren *Sin nombre* filma ikusgai. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Bizi!

PATXI ZABALETA

Pamiela, 2009

Argia ikusi berri duen lanak Patxi Zabaleta euskaltzain leitzarrak euskal gizarteari eskaintzen dion hirugarren poesia liburua da. Izan ere, 70. hamarraldian *Zorion baten zainak* eta *Ezten gorriak* argitaratu zituen. Ordutik hona euskal olerkigintzak ez du leitzarraren berri izan, nahiz eta tarteka zenbait egoeren aurrean olerkiak idatzi izan dituen. «Poesigintzan sartzan denak ez du inoiz uzten. Burmuinean harra izatea bezala da: ez da sekulan sendatzen eta ez da sekulan asetzen. Horretara zigortuak gaude, noizbait tentaldi horretan erori eta gero» dio. Urte hauetan Patxi Zabaletaren luma eleberrigintzari, saiakerari eta antzerkiari lotuta egon da gehien bat. Lanari *Aberria ala bizi!* poemak ematen dio izenburua. Liburuaren egileak aberria ala hil lelo historikoa hartu eta birmoldatu egin du, interpretazio berri bat eginez. Gainerako poemak artean, 70. hamarraldian idatzitakoak eta orain dela gutti sortuak izan direnak aurkituko ditu irakurleak.

Musika



Hero Mantra

SIXTY SEXERS

Volcom Entertainment, 2009

Rock&Rollaren samuraiak bueltan dira berriz ere. *Sexty Sexers* kantuek egin eta zuzenean ezta darazteko makina perfektua da. Erritmo sekzio indartsua osatu dute Xiker Salaberriak (baxua) eta Inaxio Agararen ordeztaldeen sartu berri den Iñaki "Fortun"ek (bateria). Gitarren riff-ek zorrotz segitzen dute Sextien munduan, sua daramate barnean Joseba Baleztena (gitarra nagusia) eta Julen Irazokiren (gitarra) sei sokek. Frontean berriz, Mikel Larratxeren nortasuna eta ahotsa. Larratxe bera arduratu da kantuen hitz gehienak sortzeaz. *Sexty Sexer* taldeko musikariak, ordea, ez dira ardura-dun bakarrak izan hero Mantra osatzen duten zortzi kantuen azken emaitzan. Karlos Osinagak soinu mahaiari, eta Joseba Irazokik produktore lanetan, lagundu dute kantuek borobiltzen. Lankidetzan arloan, Oskar Benasen eta Joseba Irazoki beraren gitarrak eta Fer Apoaren ahotsa eta testu bat izan dituzte lagun.

Internet



Arbasoen historiaren bila dabilzenentzako

WWW.ANTZINAKO.ORG

Berriki Irunen antolatu du Antzinako elkarteak II. Genealogia Topaketak. Berako Goiko argazkilaria lanek apaindu eta girotu zuten Ficobako galeria. Euskal genealogia eta tokiko historia aztertzen duen elkarte honek webgune interesgarria dauka Internet-en, genealogian edo arbasoen ikerketaren munduan murgiltzen direnentzako egokia. Bertan topatzen ahal dira, erraterako, elkarteak argitaratzen duen Antzina aldizkariaren 8 aleak eta bi ale bereziak, oso-osorik PDF formatuan. Horretaz, gain, lanbideen, herrien, etxeen edo emigratioari buruzko datu baseak, bertzeko genealogia orrialdetan ikertzeko beharrezkoak diren *batch* zenbakiak, abizen ezberdinen inguruan dauden ikerketak... Nafarroan ez ezik, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan edo Ipar Euskal Herrian ikertzeko loturak ere ageri dira.

Nire aukera



Koteto EZKURRA

Doneztebeko erremontelaria

Sukaldean aritzea eta gastronomia ezagutzea aunitz gustatzen zait

Historian izan den Herremontelari onenak gustu xumeak ditu denbora librean pasatzeko: «Nire bizitza pilotaren inguruan antolatua dago, entrenamenduetan, partidak, eta lagunekin partidak ikustera joatea gustatzen zait, erremontea, esku pilota...». Baina bere afizio-rik handiena, «sukaldean aritzea eta gastronomia ezagutzea» direla onartu digu doneztebarrak. «Izugarri gustatzen zait sukaldean aritzea, zerbait berezia prestatzea, karrillerak saltsan hagitz ongi prestatzen ditut, baina bertze hainbat plater ere bai, parrillan ongi moldatzen naiz». Horrek bere alde txarra ere badu, «lagunarteko afariak egiten ditugunean soziedadean, beti neri tokatzen zait prestatzea». Familiako eta lagunarteko giroan kartetan aritzea ere gustatzen zaio, «tutean batez ere eta orain modan dagoen pokerrean». Bidaiatzea ere gustoko du, «Txinan izan ginen», baina bidaiatzerakoan ere, tokiko gastronomia ezagutzea gustatzen zaio.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

LESACA
- Baserria salgai, lur eremuarekin.
- Etxe bat salgai, bere lurarekin.

ELIZONDO
Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK
salgai

ARANTZA. Herri sarrean, 83,5 m²ko pisua salgai lehen solairuan, 6,5 m²ko terraza. Garajeko bi marrekin. ☎629 569595.



BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845.

GOIZUETA. Kale Nagusian, 150 m²ko pisua salgai, trastelekua eta garajerako lur eremuarekin. ☎948 113203/ 600 392323.

ETXALAR. Zaharberritutako baserria salgai, lur eremuarekin. ☎620 985265.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

MERKATU TTIKIA
948 63 54 58
info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan eman

ALMUÑECAR (Granada, Espainia). Neguan klima tropikalaz gozatzeko, hondartza ondoan ongi hornitutako bi lagunen-tzako hotel-apartamentua errentan emateko. Abendutik martxoaren 30era arte, gastu guztiak barne. Eraikinean jate-txeak, ostatua, kafetegia eta ile-apaindegia dauka. 24 orduko harrera zerbitzua. ☎658 943702.

BERA. Pisu mobleztatua errentan emateko. ☎948 630270.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

ARANTZA. Baserria errentan hartuko nuke. Lur pixka batekin. ☎672 185168 (arratsaldez).



ETXEBIZITZAK
erosi

BORTZIRIAK edo **MALLERREKA** aldean borda erosiko nuke, argia eta urarekin. ☎659 019812.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESACA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

BAZTAN. 2.400 m² salgai Elizondotik kilometro batera. Leku polita eta lasaia. ☎948 592153.

LANA
eskariak

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎663 211050.

BERA edo **LESACA** emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎627 935603.

Gizon arduratsua lan bila dabil, edozein sektoretan ariko litzateke. Abeltzaintzan eta erakuntzan esperientziaduna. ☎660 752875.

Esperientziadun mutil arduratsua lan bila dabil, adineko pertsonak zaintzen, igeltsero, abeltzaintzan,

tzan, nekazaritzan, kamarero... Disponibilitate osoa. ☎680 289603.

Esperientziadun emakume arduratsua lan bila dabil, orduka haurrak edo adineko pertsonak zaintzen, baita ostalaritzan ere. Egun osoan disponibilitatea dauka, 7:00etatik 19:00etara. ☎660 289603.

ZERBITZUAK
denetarik

PSIKOANALISTA
Kontuaren eredu
☎ 948 272011 (RUA)
☎ 948 580975
Jaime Urte 42-2-D - ELIZONDO

BORDA PLADUR LANAK
ESKAILARITZA, BORDAK, BORDAK, BORDAK
1/11 948 437 546 - AL 409 477 377
LESACA (Prestazioa)
borda@borda.com

MOTORRA
salerosketak

Citroen Xantia salgai. NA-AU matrikula. Egoera onean. Konfidantzakoa. ☎661 273987.

Ford Mondeo 1.8 TD salgai. 2000koa. 160.000 km. Extra guztiak: aire egokitua, kristal-jasogailu elektrikoa, itxiera zentralizatua, direkzio lagundua. Egoera onean. 3.500

BASERRIA DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (azaroaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 41,00 € (+3,00)

Zerri gizena
1,010 € kilo. (=)

Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,92 (=)

1.koa 3,62 (=)

2.koa 3,02 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,02 (=)

1.koa 3,72 (=)

2.koa 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,82/2,92

Zaldi-behorrak: 1,52/1,72

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,70/8,50

8-10 kilokoak: 6,00/6,40

Talleres SANTESTEBAN
DONEZTEBE · Leitrako errep. 80 · T 948 450282

%25 Hilabete honetan ere
%25 ko deskontua
zure gurpilak
aldatzean

euro negoziagarriak.
☎699 478028.

DENETARIK
galdu-aurkituak

IGANTZI. Lasastiko erre-
kako iturrian antiojo ba-
tzuk aurkitu dira. ☎616
889459.

BERA. Azaroaren 23
arratsaldean, eratzuna
galdu zen Itzea karrikan.
Balio sentimental haun-
dikoa. ☎647 992350.

ANIMALIAK
salerosketak

Setter arrazako **zakur-
kume** emea salgai. 4 hi-
labete txertatua. Aita eta
ama ehiztari onak. ☎661
821645.

MENDAUR MOTOR
948 450333 · DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

DENETARIK
salerosketak

Ohe mekanizatua sal-
gai. Egoera onean. 1.400
euro. ☎660 916833.

Belar idorren boloak eta
lastoa salgai. ☎690
776147.

Lastoa salgai, pakete tti-
kiak eta haundiak. Garia,
oloa eta garagarra. **Erre-
molatxa** aziendei ema-
teko. Etxera igortzen da.
☎667 406010/ 607
457004.

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK

Arotxa
Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073
marotxa@terra.es

GABONETAKO SASKIAren irabazlea:
Txomin ARIZTIA MENDIBURU (Arizkun)

Nekiena ikasi dut;
prest nago

**BERTSO SAIO
DIDAKTIKOA**

Berako Jamotenean,
2010eko urtarrilaren 15ean, ortzirala, 20:30ean

Iñigo Olaetxea
Eneko Lazkoz
Julen Zelaieta
Julio Soto
Miel Mari Elosegi "Luze"
Xabi Terreros
Estitxu Arozena

Aurkezlea: Nerea Bruño
Didaktikaria: Karlos Aizpurua

ANTOLATZAILEA LAGUNTZAILEAK

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



NORA PALENZUELA INDABURUK abenduaren 21ean 3 urte bete ditu. Zorionak eta hiru muxu haundi familiaren partetik.




LEIRE IRIBARREN INDABURU etxalartarrak abenduaren 26an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztien partetik.



AINARA PACHECO SAN JULIAN. Zorionak sorgintxo!!! Ane, atta eta amaren partetik.



GARAZI SANTESTEBAN OTXANDORENA zubietarrak 6 urte bete ditu abenduaren 16an. Zorionak! Familia eta bereziki Naroa, Uxue, Iker eta Ekaitz.



AINARA BURGETE MIGELENA igantziarrak 9 urte bete ditu urtarriaren 4an. Muxuak aiatxo, amatxo eta Saraitxoren partetik. Ondo pasa!



Aunitz urtez **ARKAITZ!** Hagitz ongi pasa eguna eta ea etxekoak bazkari goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxu haundi bat!



EKIÑE GARAZO GAMIOK abenduaren 31n 7 urte bete ditu. Zorionak Gazteluko familia eta bereziki amabixi Engraxiren partetik. Muxu aunitz!



EKIÑE GARAZO GAMIÓ. Zorionak *bruja* ama, Asier eta bereziki zure anaia Markel eta Ugaitzen partetik. Merendola goxo-goxoa prestatu! Muxu aunitz potokoi!



NAROA eta OIER PETRIRENA ANTZIZAR. Sunbillako anaia-arreba haueri zorionak abenduaren 1ean eta 20an 2 eta 6 urte bete dituztelako. Ongi pasa eguna eta berandu ona prestatu familiaren partetik, eta bereziki Klemente, Maider, Iraide eta Garaineren partetik.



NAROA eta OIER PETRIRENA ANTZIZAR. Sunbillako anaia-arreba haueri zorionak abenduaren 1ean eta 20an 2 eta 6 urte bete dituztelako. Ongi pasa eguna eta berandu ona prestatu familiaren partetik, eta bereziki Klemente, Maider, Iraide eta Garaineren partetik.



Berroetako **MAIALEN MIGELORENA GASKUARI** eta Oronozko **GAIZKA OTEIZA MIGELORENA**ri zorionak! Berroetako familia eta batez ere Oier eta Lierniren partetik. Pastelak prest dituzte?




Oronozko **XANTI ETXAIDE MIGELORENA**ri eta Iruñeko **AITOR MIGELORENA TELLETXEARI** zorionak, laister urteak beteko dituztelako. Berroetako familiaren partetik.



ENERITZ eta MANEX ZAPIAIN ABUIN beratarrek abenduaren 19an eta 22an urteak bete dituzte. Zorionak txiripititautikos! Muxu bana familiaren partetik. Aupa Reala!



ENERITZ eta MANEX ZAPIAIN ABUIN beratarrek abenduaren 19an eta 22an urteak bete dituzte. Zorionak txiripititautikos! Muxu bana familiaren partetik. Aupa Reala!




ANDONI TELLETXEA APEZTEGIA beratarrek abenduaren 31n 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztien partetik, eta bereziki Asierren partetik.



ANDONI TELLETXEA APEZTEGIA beratarrek abenduaren 31n 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztien partetik, eta bereziki Asierren partetik.



Aunitz urtez **MIKEL!** Famili guztien partetik zorionak. Besarkada haundi bat eta ez ahaztu maite zaitugula. Eta gaintzeko preso eta iheslari gutzientzako: Maite zaituztegu eta etxean nahi zaituztegu!



Aunitz urtez **MIKEL!** Famili guztien partetik zorionak. Besarkada haundi bat eta ez ahaztu maite zaitugula. Eta gaintzeko preso eta iheslari gutzientzako: Maite zaituztegu eta etxean nahi zaituztegu!




Aunitz urtez **MIKEL!** Famili guztien partetik zorionak. Besarkada haundi bat eta ez ahaztu maite zaitugula. Eta gaintzeko preso eta iheslari gutzientzako: Maite zaituztegu eta etxean nahi zaituztegu!



Aunitz urtez **MIKEL!** Famili guztien partetik zorionak. Besarkada haundi bat eta ez ahaztu maite zaitugula. Eta gaintzeko preso eta iheslari gutzientzako: Maite zaituztegu eta etxean nahi zaituztegu!




Zorionak **VANESSA!** Urtarriaren 1ean 11 urte beteko ditu. Muxu asko Lesakako familiaren partetik eta bereziki Xabier anaiairen partetik, paaa!



NAROA RETEGI ESKUDERO eratsundarrak urtarriaren 18an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtizko familia eta bereziki Ekiñeren partetik.



Eratsungo **NAROA RETEGI ESKUDERO**ak 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtizko familia eta bereziki Ekiñeren partetik.




Leitzako **ITXARO ZESTAU GOGORTZAK** hilbeltzaren 7an 6 urte beteko ditu



Zorionak **ARITZ BIKONDO ARRETXEAK** iruritarri, urtarriaren 7an 5 urte egingo duelako. Muxu haundi bat zure arreba Uxue, aiatxo eta amatxoren partetik.



Zorionak **ARITZ BIKONDO ARRETXEAK** iruritarri, urtarriaren 7an 5 urte egingo duelako. Muxu haundi bat zure arreba Uxue, aiatxo eta amatxoren partetik.




Zorionak izeba **ESTITXU** berri! Sorgiña piruliña ematen duzu, gazteluaren aitzinean. Urtarriaren 7an jaio dena zutitu dadila! Muxu pila-pila, patata tortila! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Orti eta Lexuri.



Zorionak izeba **ESTITXU** berri! Sorgiña piruliña ematen duzu, gazteluaren aitzinean. Urtarriaren 7an jaio dena zutitu dadila! Muxu pila-pila, patata tortila! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Orti eta Lexuri.


Bidali ttipi-ttapa heretik kanpo biz dirin lagun edo familakoei

(0034)948 63 54 58



LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA | ABONATU BERRIENDAKO ESKAINTZA BIKAINAK


Urte berriari sasoi ederrean ekiteko aukera Lesakan



Erlajaziorako aukera zabalago eskaintzen du Lesakako kiroldegiak, prezio egokian.

2008ko martxoaren 1ean ireki zen Lesakako udal kiroldegia eta gaur egun 1.200 bazkide ditu. Instalazioak kirol egiteko, lasaitzeko eta goxatzeko aukera ederra ematen du: 6 kaleko igerileku estalia, udako estali gabea eta ur putzu ttikia, hidrotapia eta gune termala (jacuzzi, ur hotzeko putzua, zorrotadun igerilekua, izotz iturria, dutxa ziklonikoa, kontraste pasabidea, sauna lehorra, lurrun bainua), fitness gela eta aktibitateak egiteko (spinning, pilates, aerobic...) hiru gela. Horretaz gain, erlaxazio masajeak ere eskaintzen dira, gereziterapia, kafeterapia, esfoliazioa, kirolarien masajea...

Lesakako Udal kiroldegiak nahi duen guzientzat atea zabalik ditu. Errepide berriarekin Irunetik edo Doneztebetik hamar minututan ailegatzen ahal da modu erosoan, bidea ez da aitzaki orain, eta gainera, masifikatu gabeko instalazioa da. Eguneroko bizimoduak sortzen dituen kezka eta estuasunetaz lasaitzeko aukera ematen du, prezio egokian.



Bidea ez da aitzaki orain, errepide berriarekin Irunetik edo Doneztebetik hamar minutura dago.

ESKAINTZAK

ABONATU BERRIA:

%20ko deskontua sarrerako matrikulan. Hilabete bateko kuotaren deskontua (1.go urtean, urteko azkeneko kuota doan).


ABONATU FAMILIAR BERRIA:

%10eko deskontua sarrerako matrikulan familiako kide guztiei eta 10 urte ez duten haurrek hilabeteko kuota doan.

2 x 1 KANPAINA:

Matrikula eta hilabete bat doan (matrikula ordaintzen duenarentzat 1.ko urtean, urteko azkeneko kuota doan).

Eskaintza hauek 2010eko apirilaren 30a arte balio dute. Ezin dira pilatu.



abonatu LESAKAra



Hautsak astintzen. Bikotearen harremanetan sofo gureko lurraurena garrantzi handiko arazo bihurtu daiteke. Komenigarria izaten da, beraz, gizonak naitzean behin sofo gureko lurra gurbitzeari ekidintza emateko, lanei eragiteaz.



Maitasuna... ile apurrik galdu gabe. Emakumeentzako bakarrak egokia dela badirudi ere, gizonak, horretan gogokatu eta maitasuna jarritz gero, laster menperatu ohi daite postura hau. Ile apurrik galdu gabe.



Menáss a trúa. Emakumea lanera doanean, aitona pasentzeri ateratzen da. Gizon askok praktikatzen ez badute ere, plazer handikoa da. Galdre egiteaz, bestela, altonari.



Cullimpius. Latineratik datorren hitza. Culi (garbia) eta limpius (juntatua). Erabili eta gero botatzeko diren pisuhalei esker -buruzburuz benetako antiorgailuak direnak- egun cullimpiusa egitea guztiz eroso da.



Komunean jo. Agian gizonentzako posturak ezohikoak. Gogorra denez gero, ez da gomendatzen aitem behin bainu gehiagotan horretan jardutea. Gutxiagotan egitea ere usaimen tsarrekoak izateko.



Kama(r)eroarena. Jaleguntariko eta bihararreneko egunetako bereziki gomendagarria. Zerta onakoa postura izan ohi da, baina zerta aurretikoan ere egokia da.

LANA, FAMILIA ETA BIZITZA PERTSONALA
UZTARTZEKO II ITUN MANKOMUNATUA
2009 - 2010



BORTZIRIAK